

ARRASATE

MARAÑON GESALAGA EDURNE
LORAMENDI KALEA, 06-10. C
ARRASATE

2

PRESS

Arrasate 1999ko Abenduak 15, 44. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean




Jokin Zaitegi
omenduz

**Benito
Lertxundi**

Gure artean berriro

Amaian, ostiralean



Arrasate
Kirolak

Kontzeziño kalea, 8 - ARRASATE - Tfnoa: 79 46 12

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

| | |
|---|--------|
| Arrasateko Eskualde-Ospitalea | 795300 |
| Igualatorioa | 790500 |
| Santa Agedako Ospitalea (gizonak) | 793900 |
| (emakumeak) | 794411 |
| Buru osasunerako zentrua | 799011 |

Gurutze gorria:

| | |
|---------------|--------|
| Bergara | 765576 |
|---------------|--------|

DYA

| | |
|----------------|--------|
| Antzuola | 766291 |
|----------------|--------|

Anbulatorioak

| | |
|--------------------|--------------|
| Arrasate | 791357 |
| | 799722 |
| Oñati | 780852 |
| Eskoriatza | 798896 |
| Aretxabaleta | 797458 |
| Aramaio | (945) 455116 |

Anbulantziak:

| | |
|-------------------------------|--------|
| Gipuzkoako anbulantziak | 458744 |
|-------------------------------|--------|

Udaltzaingoa:

| | |
|--------------------|--------|
| Oñati | 780411 |
| Bergara | 761469 |
| Arrasate | 791439 |
| Aretxabaleta | 791052 |
| Eskoriatza | 790322 |

Ertzantza:

| | |
|----------------|--------|
| Arrasate | 797199 |
|----------------|--------|

Suhiltzaileak:

| | |
|--------------------------------------|--------|
| Udal taldea | 790900 |
| Udal taldeko suhiltzaile burua | 792072 |
| Zubillagako Eskualde-Parkea | 782800 |

Matxurak:

| | |
|----------------------------------|-------------|
| Urak (udal zerbitzua) | 790900 |
| Elektrizitatea (Iberduero) | 790581 |
| Gasa | 900 400 523 |
| | 797844 |
| | 797678 |

Garraioak:

| | |
|---------------|--------|
| Taxiak | 791222 |
| P.E.S.A. | 791419 |

Hirugarren adinarentzako zentruak:

| | |
|---------------------------------|--------|
| Iturbide Egoitza | 797211 |
| Abaroa jubilatuen egoitza | 798157 |

Kontsumitzailearentzako informazioa:

| | |
|--|--------|
| Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak | 798777 |
|--|--------|

15 OSTIRALA

- Zinea: Alai: "La fuerza del destino". 7 eta 9,30etan.
- Novedades: "Encerrado". 10,30etan.
- Kantaldia: Benito Lertxundi. Amaia antzokian gaueko 10,30etan.
- Hitzaldia: "Patagoniara espedizioa". Iñaki San Vicenteren eskutik. Diapositibez aurkeztua. Monterron kultur etxean arratsaldeko 7,30etan.
- Antzerkia: Bederen bat taldearen eskutik "Erreleboa" antzeslana. Oñatiko Santa Ana antzokian gaueko 10,30etan.
- Ludotekan haurrentzako eskulanak.
- Guardiako farmazia: L. Amezua. Santa Marina.

16 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Una pandilla de lunaticos". 5, 7,30 eta 10etan.
- Novedades: "Desventuras de un recluta inocente". 5, 7,30etan. "Encerrado". 10,30etan.
- Santamas X. Pilota Txapelketako azkena.
- Dantzaldia Txintxarri musika taldearekin. Sebero Altube enparantzan, gaueko 10,30etan.
- Haurrentzat marrazkiak kalean, lurtean zein paperean. Ludotekak antolatuta.
- Guardiako farmazia: A. Ruiz. Magdalena.

17 IGANDEA

- Zinea: Alai: "Una pandilla de lunaticos". 5, 7,30 eta 10etan.
- Novedades: "Encerrado". 5, 7,30, 10,15etan.
- Kontzertua: Oñatiko musika banda, Oñatiko txistulariak, Txantxiku Ikastolako Abesbatza, Oñatiko abesbatza eta Parrokiako abesbatza. Oñatiko Parrokiakian.
- Santamas XI. Krossa herriko kaleetan zehar.
- Mondragon F.T.ren himnoaren aurkezpena. Eguerdiko 12,30etan Monterronen.

ERAKUSKETAK

Grabatuak. Imanol Moreno, Miren Olazabal eta Goio Arana arrasatearren lanak ikusgai Elorrioko Zinemaren. Zine emanaldia baino bi ordu lehenagotik eta bi ordu beranduago arte. Jose M^o Ugaldereen pintura lanak ikusgai Oñatiko Etxe Aundi jaietxean hilaren 19 arte. Euskal Hitz. Oñatiko Santa Ana aretoan, hilaren 15etik aurrera.

IKASTAROK

Areto dantzak. Hasi berrientzako ikastaroa: Vals, Pasodoble, Tango eta Chachacha. Aurrez ibilitakoentzat: Rumba Cubana, Samba, Fox-trot eta Rock and Roll. Hilaren 16 eta 17an. Musakolako aretoan. Izen emateak kiroldegiko bulegoetan.

LIBURU ETA DISKEN AZOKA

Euskal liburu eta disken azoka Sebero Altube enparantzan. (Frantziskanoren aretoan). Hilaren 21etik 24era bitartean.

AUTOBUSAK

Hilaren 17an Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera joateko autobusa antolatuta du AED elkarteak. Izen emateak AED elkarteak. Autobusak goizeko 9,15etan irtengo dira eta ez aipatu den bezala 9,45etan.

— Kukubiltxo taldearen emanaldia. "Umeak gara eta zer?". Sebero Altube enparantzan, arratsaldeko 4etan.

— Dantzaldia Eguzki taldearen eskutik. Gaueko 8etan, Sebero Altube enparantzan.

— Guardiako farmazia: A.M. Morales. San Andres.

18 ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Una pandilla de lunaticos". 7 eta 9,30etan.
- Novedades: "Encerrado". 5, 7,30etan.
- Hitzaldia: "Jokuetan sexismorik ez". Miren Ormazabal eta Ines Elkorobarrutiaren eskutik. Arrasateko Emakumeen Asanbladak antolatuta.
- Oñatiko Santa Ana antzokian sukaldaritza buruzko hitzaldia. Arratsaldeko 7etan.
- Guardiako farmazia: A. Azkoaga. Ferrerías.

19 ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Una pandilla de lunaticos". 7 eta 9,30etan.
- Haurrentzako antzerkia: "Azukre koskorra" antzeslana Orain taldearen eskutik. Goizeko 10etan eta Arratsaldeko 3etan.
- Guardiako farmazia: S. Español. Iurriotz.

20 ASTEAZKENA

- Zinea: Alai: Ez dago sesiorik.
- Guardiako farmazia: M. Corcuera. Musakola

21 OSTEGUNA

- Zinea: "Cuando me enamoro" 7 eta 9,30etan.
- Kiliki eta Erraldoien kalejira. Arratsaldeko 7etan.
- AEDk antolatutako lehiaketan sari bana-keta. Monterron kultur etxean arratsaldeko 7etan.
- Dantzaldia, Anker musika-taldearen eskutik. Biteri aparkalekuan, gaueko 10etan.
- Guardiako farmazia: J.A. Irizar. Erguin.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Arrasate Pasealekua 3 Bis, etxebehea.
20500 ARRASATE. Tfnoa: 79 71 64

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea: Josune Biteri

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki
Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karnele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Mikel
Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion
Taldea, Joseba Vallés, Karmelo
Uribarren, Iñaki Aranburu,
Hankamotz.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Harpidetzak: Arrasate pasealekua 3,
bis, behea. 79 71 64

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 5.600 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSek ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Ayer y hoy del valle de Aramaiona

Ez dut uste orain arte Arrasate Press-eko orrialde honetan inoiz nire jaioterriaren gaineko gorabeherarik aipatu dudarik. Zilegi bekik, beraz, gaur egitea, aitzakia ederra daukat eta. Aitzakiak irits daitezkeen erarik atseginenaz datorkit, gainera, gaurkoa. Eta, gutxi bailitzan, adixkide dudan Jesus Mari Elejalderen esku-tik, berau baitugu arestian plazaratu zaigun "Ayer y hoy del valle de Aramaiona" liburu zoragarriaren egilea.

Aramaio Ibarra Arabako Anai-dietan sartu zeneko bostehungarren urtemuga ospatzen ari garen urte honetan, horra non agertzen zaigun historiaren eraginpeko aramaioar-oren oraina azaldu nahi digun dokumentazio bikain eta ongi taxutua. Benetan, lan mardula Jesus Marik eta bere laguntzaileek egin dutena. Noski, gure aztarna eta sustraien izkutueta murgil egitea atsegin dugunok biziki eskertu behar diegu eskaini diguten oparia.

Askotan idatzi dudan bezala, Aramaio Ibarra uharte bat izan da historia eta etnologia ikerketetan. Arrazoia, ibarraren beraren nolokotasunetan bilatu behar dugu; topografiko, giza eta hizkuntza baldintzek arras mugatu dute Aramaio izakeraren azeterketa. Araba izanik,

arabarrek ez dute ia oraintsu arte ibarreko sekretuetan aurrerapenik egin ahal izan. Gerardo Lopez de Gereñuk —arabar etnologiaren patriarka— bertan behera utzi behar izan zuen aramaioarren gaineko datu-bilketa, hizkuntza arazoa zuela eta. Bizkaitar nahiz gipuzkoarrak ez dira, berriz, ibarrak eskainitako aukeraz behar bezala baliatu.

Zorionez, hutsunea betetzen joan da azkeneko urteotan eta oraindik asko egiteke dugun arren, artxibategi publiko nahiz pribatu edota giza oroitzapenaren estratoetako lekukotasunak bildu eta argitaratzeaz batera, gure ibar maitearen nortasuna tinkoagotzen joango gara. Han, Aramaion bertan loratzen ari omen den historiagile gazte horiengandik gehiago espero dezakegu. Jesus Marirena ez da horientzat eredu txarra izango.

Oso ongi moldatu du egileak liburu hau. Argibide piloa, iturri onetatik eskuratutakoa. Idazkera erreza, irakurketa nekeza egin ez dakigun. Gustora irakurtzen diren horietakoa dugu Jesus Marik borobildutako tomoa. Egitan, gure ibarraren izakeraz ongi janzteko garragailu paregabea. Lerro haueetatik, zorionak eta eskerrak igortzeaz bat, erregu xehea Jesus Mariri: jarraitu horrela!


Josemari Velez de Mendizabal

inpresio ona



Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA

inprimategi eta
autoedizio
zerbitzuak



gili gili

Iturriotz,9 Tfnoa:799457

**GIROA
AROTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

MARENAZA

A Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

MARTINEZ

aroztegia

Sukaldetan
neurri guztietako
altzarilak

Araba Etorbidea 13,
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea 2,
Tfnoa 79 29 94
ARRASATE

Maxi Eroski dela eta

Kaixo Lagunok
Ireki dute zorioneko Maxi Eroski, Arrasatek horrelako zerbitzu baten premia zeukan, eta horretan denok ados gaudela uste dut.

Baina oraingo honetan bertako langileen erru batengatik esperientzia latz bat jasan ondoren, neure haserre bizia adierazi nahi dut esku-titz honen bidez.

Oso ondo deritzot ahalik eta sistema aurreratuenak ipintzeari lapurretak egon ez daitezen, baina halako "sistema konplexuak" martxan ipini aurretik lehenik erabiltzen jakin behar direla uste dut, jakin ezak erakar ditzakeen ondorio latzak gerta ez daitezen.

Joan zen astean, kolonia bat erosi nuen eta antza denez ordaintzerakoan ez zioten produktuari alarma dispositiboa kendu. Handik egun batzutura bertara joan nintzen erosketak egitera, kolonia poltsan nermalala eta kajatik igarotzerakoan zein izan zen nire harridura alarma jotzen hasi zenean. Bat batean nire ondoan "guarda jurado" agertu zelarik poltsan nituen gauzak ateratzeko aginduz.

Berehala kolonia hartu eta niri ezer esan gabe, bulegoetara zuzendu zen. Une urduritsu eta larriak igaro nituen mundu guztia begira nuela, normala denez halako kasuetan.

Tarte horretan gogoratu nintzen kolonia erosi nuen eguneko kontua

banuela, honekin bulegoetara joan nintzen. Bertan nire salaketari eman zioten erantzun bakarra, barkatzeko, berriak direla kontutan hartzeko... eta antzeko argumentuak izan ziren.

Baina nik, halako hutsegite grabak ezin direla inolaz ere onartu uste dut. Halako egoera okerrak herrian zabaldu daitezkeelako, edozein pertsonaren ohorea zikinduz betirako.

Beraz, ea ikasten duten horrelako hutsegiteen aurrean erantzun egokiak, azkarrak eta baliogarririk ematen, berriro horrelakorik gerta ez dadin.

Arantza Heriz Lasarte

Arrasatear guztiei oharra

Arrasateko kuadrilen komisiok, ohar honen bidez Arrasateko tabernari, dendari eta jaiari parte hartu behar duzuen guztiei dei egiten dizue, SANTAMAS jaiari barruan, abenduaren 22an, ostirala, kalera baserritarrez jantzita irten zaitezten.

Jai honen inguruan sortzen den giroa oso jatorra denez eta aurrerantzean ere indartu behar dugunez, ea aurtengoan ere, parte hartze zuzena izateaz gain baserritar jantzita ateratzera animatzen garen.

*Arrasateko Kuadrilen
Komisioa*



Abenduaren laua egun tristea izan genuen Arrasate Pressen. Rafa Perez, hogetahiru urteko gaztea makina batek hil zuen. Rafa Perez Arrasate Pressen banatzailea genuen, hilabete pare bat zeraman kale inguruko banaketan. Ostiralero agertzen zen AEDn, etiketak ipini eta banaketa egiteko asmoz. Ez dugu gehiago ikusiko. Lerro hauen bidez bihoazkio gure omenaldi eta eskerrona.

Zer deritzezu Santamas festei?



Nekane Amozarrain
(Irakaslea)

Ondo daude, San Juan festak baino askoz hobeto daude. Festa honek dituen ezaugarriak mantendu egin beharko genituzke.



Eduardo Sanpedro
(langabetua)

Oso ondo daude, urteko festarik onenak direla uste dut. Tradizioari jarraitzen diote, ezin hobekak direla uste dut. Behar bada jende gehiegi egoten da, baina tira.



Jon Isazelaia
(langilea)

Oso ondo daudela uste dut, ohitura horiek gorde egin behar dira.



Mertxe Bedia
(langilea)


Oso ondo daude, urteko festarik onenak nire ustez. Oso tradizionala da eta atsegin dut, behar bada feriak denbora gehiago iraun beharko luke.

L E N I Z

AUTO ESKOLA

ARRASATE-Aldai, 9-Tel. 79.46.04

ESKORRIATZA-Arana, 13-Tel. 79.36.59



Jesus Giraldo

LISERI-APARATUA

X Izpiak, endoskopia

(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Prevlasa, Adeslas

(Muface) eta partikularrak

Kontsultak arratsaldeetan

Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tfnoa: 79 04 14 Arrasate

Memesa

79 42 22

itesa

- * Pisu eta lokalak
- * Orube eta lursailak
- * Balorapenak

Gure aholkularitza, gestio eta salmenta-zerbitzuak eskaintzen dizkizugu

Maalako errebala 6, 1



Azoka Plaza itxi egingo da

Datorren urtean postuen kontzezioak bukatu

1990eko abenduaren 31ean, Udalak bere garaian hogeitertiarako erandako postu-kontzezioen epea bukatuko da. Horrela, *Ikei* enpresari ikerketa eskatu zitzaion orain dela gutxi.

Hiru dira Azoka plaza mantentzeko beharrezkotzat ematen ziren erizpideak: Produktuak merkeago aurkitzea, produktuaren kalitatea hobetzea, edo produktu biltzea posiblea.

Baina ikerketaren ondoren, gaur egun baldintza hoiek ez direla guztiz betetzen erabaki dute. Alde batetik Azoka Plazako instalazioen egoera

txarragatik, eta bestalde Maxi-Eroski bezalako kateek ematen duten aukera handiegatik.

Kontua da asteleheneko Gobernu Batzordean aurre-erabaki bat hartu zutela datorren urtearen amaieran Azoka Plaza ixteko. Dena den, Udalak oraindik ere ohitura zahar bat gorde nahiko luke, hau da, base-ritarreri noizbehinka beraien produktuak saltzeko aukera ematea: Esnea, gazta, barazkiak, etab.

Horretarako aire zabaleko gunea aurkitu nahi dute (agian Biterin). Kontuak kontu, 1991etik aurrera Arrasate Azoka Plazarik gabe!

Planetarioa San Vitorren

Azaroaren 27tik abenduaren 1era, Madrileko *Rigel* enpresako astronomia departamentuaren eskutik planetarioa izan genuen San Vitorren. EPP, Institutu eta San Frantzisko Xabier ikastolako 1242 ikasle hurbildu ziren bertara, eta azken egunean baita 25 irakasle ere bai.

Hiru emanaldi ezberdinetan, bakoitza ordubeteko, honako gai hauek aztertu zituzten:

1. Planetarioa: izarrak, ekliptikak, gaua, konstelazioak, etab.

2. Eguzkiaren ikerketa: eguzkiaren ezaugarriak, zatiak, nola sortzen duen energia...Guzti hau filtro bereziak erabiliz.

3. Ikus-entzute: Mercurio, Venus, Lurra, Saturno, Sateliteak, Kometak, etab.

Jaiotzak

Benito Sanchez, *Nuria*, azaroaren 27an
Albeniz Urrutia, *Lorea*, 27an
Villalta Barrueta, *Itsaso*, 29an
Herrero Gomez, *Iban*, abenduaren 4an
Escati Ibarrondo, *Irene*, 6an

Ezkontzak

Antonio Moreno Galan & M. Teresa Gomez Bengoetxea, zibilez, abenduaren 2an
Miren Alberto Garai Villar & M. Teresa San Vicente Ormaetxea, 2an
Rafael Agustin Lorenzo Martin & Miren Arantxa Axpe Barrutia, 5ean
Felipe Zabala Corcuera & M. Angeles Sanchez Denova, 9an



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^a Gomez doktorea
A. Ofalora doktorea
A. Estomba doktorea
M^a Jose Ruiz doktorea

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...
Jose Luis Higura: Kirurgia, basektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.





Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE

HERRIGINTZAN

CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA



- ▶ Euskal Herri osoan ordezkaturik dagoen Kutxa bakarra gara.
- ▶ Euskal Lehen Enpresa-Taldearen bul-tzatzaile garen Entitatea.
- ▶ Eta gainera... hona gure gaztetasuna:

1959

1988

| | |
|---------------|----------------------------|
| Lehen Bulegoa | 190 Bulego |
| Lehen Bezeroa | 725.000 Bezero |
| Lehen Milioia | 221.000 Milioiko aurrezkia |

...29 urtetan soilik.

- ▶ Zatoz elkarlanean parte hartzera.

Horrexegatik,
Lan Kide Aurrezkia
"Euskadiko Kutxa" da



Euskadiko Kutxa

“Gertakizun mailan sartuz, ‘Arrasate Press’ astero-koaren sorrera dugu garrantzizkoenetakoa. Bere balio dudaezinezkoa aparte (duen arrakasta irakurlegoan, publizitatea biltzeko duen gaitasuna, egiteko erabiltzen duen teknologia, herriko gaitetan aritzeko duen trebezia, kontratopean lan egiteko izan duen abilezia eta AED elkarteko ‘multimedia’ bihurtzeko xedea), esperientzia Jaurlearitzakoen manipulagai suerta daiteke. Esan nahi bait da, izan duen arrakasta erakutsiz, Kultura Sailak agian ezinezko bihurtzen zaion euskarazko egunkariaren orde merke saltzeko merkantzia izan daitekeela, hemendik aurrera ‘eskualdeko proiektu’ direnak sustatuz. Proiektu lokalak, ordea, ez dira proiektu nazionalak”.

“Argia” aldizkariaren Euskal Kulturaren Urtekaria 89an)

“Euskal prentsaren zein egunkariaren etorkizuna eta egitasmoak eztabaidagarri direnotan, badirudi erabateko zabalkunde eta arrakasta ona duen modelua udal-aldizkariena dela, hau da, herri bakoitzean lekuan lekuko aldizkaria, bertako biztanleen arazo eta gertakarietatik hurbil, Mondragoeko ‘Arrasate Press’ lekuko. Giro honetan kaleratu berri da Ermuan, Euskal Birusa taldearen eskutik, ‘Drogeteniturri’ aldizkaria. Ermuan eta euskaraz, ez da gero meritu gutxi”.

“Eguna” aldizkarian)

“Nire galdetzaileari paper bat eman zioten eta aurpegiera aldatzen zitzaiola ikusi nuen. Handik hoge minutura Cepeda koronela, Haziendako poliziburua, eta Espainiako enbaxadorearen aurrean nengoan. Nire inozentziaz konbentzitzeko ahaleginak egin ostean, ni askatzeko baimena sinatu zidan, El Salvadorren hogeitalau ordu baino gehiago gelditzen banintzen ez zuela nire bizitzaz erantzungo esan zidan arren. Biharamunean Espainiarako hegazkina hartu zuen”.

(Migel Andueza fraile bergararrak ‘El Mundo’ egunkarian)

Zer eritzi duzu Mondragoeko esperientzia Kooperatiboari buruz?

Egia esan, orain arte apenas ezagutzen nuen mugimendu hau. Hona etorri aurretik Ormaetxea jaunak hainbat liburu bidali zidan, D. Jose M^a Arizmendiarrietarena barne, eta horiek irakurri eta gero etorri nintzen Mondragoera. Nire inpresioa halabeharrez nahiko azalekoa da, irakurritakoan oinarritzen delako, nik ez bait dut mugimendu hau barrutik bizi izaterik izan.

Azalekoa izanda ere, nire eritzia positiboa da. Etorri eta gero, oso ondo antolatuta aurkitu ditut kooperatibak, ikerketa zentrua (Ikerlan) esate baterako. Han ikusitako robotak, laserrak eta gainontzeko elementuek oso inpresio ona eragin didate, bertako zuzendariak bezala.

Beste elementu deigarria niretzat LKako lehen-dakariaren xalotasuna izan da. Batetik bestera eraman ninduen, beste mundukoa ez zen berebilean, inolako harrokeriarik gabe.

Kooperatibek oso momentu interesgarria bizi dute. Ekialdeko gobernu sozialisten erorketa ikusten dugun honetan, kooperatibismoa izan liteke nire us-tez transizio bide egokia herri guzti horientzat, bestela sistema komunistatik kapitalistera arteko aldaketa gogorregia gerta lekieke eta.

Urte mordo da azkenengoz Arrasatera etorri nintzenetik. Erabat aldatuta aurkitu dut. Etxe zatar asko egin bada ere, oraindik gordetzen du bere xarma. Alde zaharra, LKako baserria, Ikasbide eta Ikerlan adibidez, ikaragarri gustatu zitzaizkidan.

*Jose Luis L. Aranguren
Filosofoa*

beatriz
oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

ERAÑA
AHOLKULARITZA
OROTARAKO
ASEGURUAU

Kontzesiño kalea 4, behea
Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

AURRERATZEKO

SF

AIZKORA

AUTOZERBITZUA

Maalako Errabala 7, Tfnoa: 79 15 56

KLINIKA DENTALA

DOANEKO AURREKONTUA

- * Odontologia orokorra
- * Protesi finkoa
- * Protesi mugikorra
- * Haur eta helduentzako ortodontzia

Iturriotz kalea 7, bis-behea. Tfnoa: 79 73 88 ARRASATE

**ARRASATE
PRESS**

79 71 64

prentsaren begia

OSTIRALA 8

CORREO: "Arrasateko korporazioak datorren astelehenean bilera monografikoan merkatuaren bideragarritasuna aztertuko"

DEIA: "Udalak Azokako plazaren erreforma aztertuko"

DV: "Lurrazpiko aparkalekuak: 164 Obenerrekan eta 179 San Andresen"

EGIN: "Tabernen Ordenantza arautzaile berria behin betiko onartu"

LARUNBATA 9

CORREO: "Arrasateko drogomenpekotasunerako zentrua pertsonala kontratatzeko zain".

DEIA: "Musakolan eskubaloi-partidu interesgarria".

DV: "Landako urtegia: etxemina eta ilusio jaio zireneko etxeak berriro ikustean".

EGIN: "Korporazioa astelehenean bilduko azokako plaza aztertzeko".

IGANDEA 10

CORREO: "Laster aurkeztuko Arrasaten San Andres birregokitzeko azterlanaren hasierako fasea".

DV: "Arrasateko epaitegia Barruti-epaitegia izatetik Bake-epaitegira pasa"

EGIN: "Santamasak komisioko partaideek herritarrei deialdia luzatu 22an baserritar jatzeko"

ASTELEHENA 11

CORREO: "Arrasateko korporazioak azokako plazaren etorkizuna aztertuko gaur"

ASTEARTEA 12

CORREO: "Arrasateko Udalak Diputazioarekin konpromezua espero El Ferial eta Iturripe proiektuak subentzionatzeko".

DEIA: "Igande honetan, kuadrilen arteko eta gazte-mailako krossa"

DV: "'Mondrak' 20 minututan jokatu, gero denbora pasa eta kontserbadore jokatzeko"

EGIN: "Invesco-k gazteen egoerari buruzko azterlan soziologikoa burutu"

AZTEAZKENA 13

CORREO: "Arrasateko azoka eraitsi egingo eta baserriko produktuak saltzeko plaza estali bihurtuko"

DEIA: "Santo Tomas jaietarako lehiaketak eta erakusketak"

DV: "1990eko abenduaren 31n itxiko azokako gaur eguneko plaza"

EGIN: "Gobernu-Batzordeak azokaren gaia aztertu baina erabakirik hartu barik"

OSTEGUNA 14

CORREO: "Arrasateko kale edo plaza batek Jokin Zaitegi idazlearen izana har lezake, herriko "seme kuttun" izendatu ondoren"

"Arrsate Press-ek lehen urtea bete, 5.500 aleko tiradarekin"

DEIA: "'Taxi a El Cairo' gaur gauean Amaia Antzokian"

DV: "'Santamasak-89' programa ofiziala; egunik handiena 22an"

EGIN: "Udalak Iturripe eta El Feriali buruz Diputazioaren akordio batera heltzea espero"

Usteak uste...

Gerraosteko belaunaldi galduko semea izan genuen Jokin Zaitegi. Orixe, Labaien eta beste askorekin batera. Gerra madarikatu hark makina bat itzaropen, egitasmo eta bizitza errotik moztu zituen. Jokinek, hala ere, ez zuen etsi, burugogorra zen, eta atzerriko exilioan zegoela lan eskerga egin zuen, ordain eta errekonozimendu publikorik izan ez zuen lan erraldoia. Eragile aparta izateaz gain, bakarrik saiatu zen euskara klasikoan munduan sartzen.

Exilioaren bakardadeari Euskal Herriak haren bueltan bizi zituen aldaketak erantsi behar izan zitzaizkion. Gure gizona ilargia bera baino bakarrago gelditu zen, esan nahi bait da, Jokinen erudia ez zetorren euskararen batasunak jarritako ereduarekin bat eta beste behin zokoratua gelditu zen. Ez zuen amorerik emango, ordea, eta aurrera egin zuen.

Jokin Zaitegi, nire ustez, Resurrección M. Azkue eta Sebero Altube bezala, eskola edo jarraitzailegorik sortu ez zuen erraldoi horietakoa izan zen. Hala ere, Arrasate harro egon daiteke Jokinez eta ostiral honetako pleno berezian gure herriak zor dion zorraren zatitxo bat emango dio seme kuttunari herriko plaza baten izena eta haren gustokoago izango zena, liburutegi bat eskainiz.

Horren inguruan, gerora euskararen erabilpenean garrantzi ikaragarria izan dezakeen hitzarmena sinatzeko proposamena aurkeztuko zaio Udalari. Baietz ematekotan, hitzarmen horren sinatzaileek euren artean trukatu-ko luketen dokumentazio guztia euskaraz egiteko konpromezua hartuko lukete. Jokinek eta euskarak merezi dute horrenbeste.

Joxe Aranzabal



OMU mosaikoak

Zeramika-erakusketa: *Otalora 1ean*
Biltegi berria: *Meatz-Erreka*

ARRASATE


ARFEGA

Pinturak, opariak
eta jostailuak

Erguin 10, ARRASATE

EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 89

FINALA



DONOSTIAN

Abenduaren 17an, igandea
Anoetako belodromoan

Goizeko 11,30etan eta arratsaldeko 5etan

Sebastian LIZASO

Jon LOPATEGI

Andoni EGAÑA

Xabier "EUSKITZE"

Jon ENBEITA

Iñaki MURUA

Imanol LAZKANO

Mikel MENDIZABAL

PROMOCIONES MARKULETE, S. A.

NABE INDUSTRIALEN SALMENTA

Mendi-Etxebarrin

445 m² tik aurrera sarbide zabalarekin

*Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.


*Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia

*Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa
eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95



Kataideko industrialdea

1988ko udazkenean ekin zioten Kataideko industrialdea eraikitzeari. Bere momentuan, Arrasateko Udalak *Construcciones Brues* enpresari eman zion lanak egiteko baimena. Obrak amaitzeaz daude, bi hilabeteren epean seguraski bukatuak egongo direlarik.

Industrialde berrian Roneoko lantegia izango dugu enpresa nagusia. Dena den, beste hogetahiru

pabiloi ere eraikiko dira bertan. Kontutan izaten badugu enpresa batzuk pabiloi bat baino gehiago eskatu dutela, guztira hamabost bat aktibitate ezberdin kokatuko dira Kataiden.

Gaur egun *Gaurko S.A.* da bertako bi pabiloietan lanean diharduen bakarra. Beste enpresa batzuk, berriaz, Udalarekin tramiteak egiten hasiak dira: *Mugarri* (hiru pabiloi),

Arrasate Pentsuak, *Aluminios Josu*, etab.

Hasieran errekaren ubidea aldatu behar izan zuten (DC-9 makinaz). Etorkizunerako ere aldaketaren batzuk prest: deialdi publikoaren ondoren emango den jatetxea, berdegunea, kirol eta gizarte ekipamenduak (pista ezberdinak, Gurutze Gorria...), erreka aldamenean zabalduko den pasagunea, etab.



ASEGURU ARTEKARIA
Zure esanetara gauzkazku!

Maalako Errabala 33, Etxabea.
Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASTE



Iokin Zaitegi Omenduz

Plaza eta liburutegia eskainiko zaizkio

Iokin Zaitegi Arrasateko seme kuttun izendatu zuten bere garaian (hil aurretik gainera), baina oraindik ere gure herriak gizon hau omentzen dihardu jo eta ke.

Ostiraleko plenoan omenaldi berria burutu nahi dio Udalak. Alde batetik, badirudi plaza eskainiko diotela, Roneoko etxe berrietan geldituko den plaza hain zuzen ere.

Bestetik, ostiralean bertan Monterroneko jauregian Iokin Zaitegiri eskainitako liburutegia inauguratuko da. Ekintza garrantzitsua, non

Euskaltzaindiako hainbat ordezkari egongo diren: Jose Luis Lizundia, Juan San Martin, Aita Villasante, Haritschelhar, etab.

Urte mordoxka atzerrian eman behar izan zituen, baina Arrasatek ez du inoiz bere seme kuttuna ahaztu, ez horixe! Omenaldi honen inguruan ere, Euskera Batzordeak proposamen bat aurkeztuko du ostiraleko plenoan, Arrasateko Udalak ere parte har dezan euskara sustatzeko herri mailako elkarte ezberdinek zinatuko duten hitzarmenean.

Gipuzkoako X. akordeoi lehiaketa

Abenduaren 8, 9 eta 10ean, Gipuzkoako X. akordeoi lehiaketa eta Gipuzkoa 89 festibala antolatu ziren Arrasaten

Bi milioitako aurrekontuaz, adin guztietako 90 bat partehartzaile elkartu ziren bertan. Epaimahaian, nazioarteko bost kategoriatiko: Newy (DDR), Bonnay eta Mornet (Frantzia), Precz (Polonia) eta Jose Antonio Hontoria (Espainia). Amaieran, honela gelditu ziren gauzak:

A taldea (11 urte arte)

1. saria: Iñigo Aizpiolea
2. saria: Mertxe Gartzia.

B taldea (12-15 urte artean)

1. saria: Idoia Otegi
2. saria: Iratitz Manterola

D taldea (16 urtetik gora)

1. saria: Aitor Zurrundarena
2. saria: Flor Fernandez



Igandeko sari banaketa



Anboto

INBERTSIO ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Salgai edo alokatzeko dauden etxeak, Leintz bailara eta Oñati aldekoak batez ere, behar ditugu Anboto Inmobiliarian

Propietate inmobiliarioaren agenteak, inmobiliaria honetan egindako salmenta eta kontratuak garantizatzen dira.

FIDA ZAITEZ


Iturriotz kalea 11, Tfnoa: 79 20 48 ARRASATE

INFORMATIKA AKADEMIA

- 🍏 Ikastaroaren iraupena: 30 ordu
- 🍏 Talde murriztuak, gehienez lau ikasle
- 🍏 Oso klase praktikoak

AUSART ZAITEZ!!!

Dr. Bañez 13an gaude (San Andres)
Tfnoa: 79 18 08 ARRASATE



Europar teknologiarekin bat

Satelite bidezko kurtso eta ikastaroak EPPra

Arrasateko Eskola Politeknikoak, Ikerlan eta Fagorren laguntzaz, *Europace* sarearen barne sartzearabaki du. *Europace* sarean, maila tekniko altuko ikastaro eta heziketa iraunkorreko mintegiak eskaintzen dira satelite bidez. Horren truke, EPP, Fagor eta Ikerlanen artean 1.400.000 pta. ordaindu beharko dituzte urtero.

Ikastaro eta Mintegi hauek Europako Unibertsitate eta Institutu politeniko arrakastatsuenek ematen dituzte. Gainera, igorle eta hartzailearen arteko interkomunikazioa bi-

latzen dute telefono, telefax, telex, posta elektronikoa, etab.en bidez.

Ikastaro bakoitzak zerbitzu osagarriak eskaintzen ditu: apunteak, bibliografia eta irakurgaiak besteak beste. Aipatu behar ere sei arlo jorratzen direla, eta guztiak ere ingelesez: adimen artifiziala, telekomunikazio sistimak, software-aren injinierutza, fabrikazio teknologia aurrerakoiak, mikroelektronika eta teknologiaren gestioa.

EPPko liburutegitik emanaldiak grabatu, aukeratu eta inguruko elkarteei banatuko dizkiete.

Iñaki Mendigurenek "Cafe Iruña" saria irabazi

Iñaki Mendiguren arrasatearrak aurtengo "Cafe Iruña" literatur saria irabazi berri du -400.000 pta.rekin batera- euskal sailean *Altzak badu bihotzik* nobela laburrarekin. Epaimahaiak, inoiz ez bezala, aho batez eman zuten erabakia. Zenbait antolatzaileen hitzetan, Iñakiren nobelak -idatzi duen lehena, izan ere- harridura sortu zuen epaimahaikideen artean, erakusten duen kalitateagatik.

Iñaki Mendiguren, 35, Ezkion jaio zen. Irakaskuntzan lan egin eta gero (EPPn eta Irakasle Eskolan), itzulpengintzan dihardu gaur egun buru belarri. AEDko fundatzailetariko, baita Arrasate Pressekoa ere, non erredakzio-kontseilukide dugun. Zorionak!



APAINKETA



Zubizarreta

GALERIA 44

ZORIONAK ETA URTE BERRI OPARITSUA

24ean, igande, Olentzero egunean irekiko dugu zure zerbitzurako

OSAGARRIAK

OPARIAK


ERAKUSKETAK

J.M. Arizmendiarrjeta IV. lehiaketa

Azaroaren 30ean, osteguna, Eskola Politeknikoko areto nagusian ospatu ziren Jose Maria Arizmendiarrjeta jaunaren oroimenez antolatutako ekintzak.

Alfonso Gorroñogoitiaren aurkezpenaren ostean, Anton Perez de Calleja jaunak Jose Maria Arizmendiarrjetari buruzko hitzaldia eman zuen. Ondoren, eta ekitaldiarekin amaitzeko, J.M. Arizmendiarrjeta IV. lehiaketaren irabazleen aldarrikapena eta sarien banaketa.

A mailan : 25.000 pta.z., "Denborapasa onena, herrian dagoena". Egileak Garbifñe Errasti, Saioa Arando eta Irma Arabaolaza, hiruak ere Almen ikastetxeoak.



B mailan 1. saria: 40.000 pta.z., "Ezinaren bila". Egileak, Almen ikastetxeko taldea (Larraitz, Mirari, Rebeka, Laura, Xabier, Iker, Oier, Asier eta Aitor).

D mailan 1. saria: 40.000 pta.z., "Aisialdia, Aisialdia". Egilea, Izaskun Benito, Eskoriatzako Irakasle Eskolakoa.

Asteartean antzerkia

Asteartean, abenduak 19, goizeko 10etan eta arratsaldeko 3etan "Azufre kokkorra" obra antzes-tuko du Donostiako *Orain* antzerki taldeak. Arlo komikoa lantzen dute, eta astearteko emanaldiak 5. eta 6. mailako haurrentzat izango dira.

Maribel Belastegiren zuzendaritzapean, Kike Diaz de Rada, Iñake Irastorza eta Jokin Conde antzesleak. Amaia antzokian.



Fosil erakusketa Monterronen

Abenduaren 11an hasi eta hilaren 22a arte, Jesus Narvaezen Fosil erakusketa izango dugu ikusgai Monterronen. Egunez ikastetxetako haurrentzat, eta 6etatik 8etara publikoarentzat. Euskal Herrian jasotako 100 bat fosil aurkitu ahal izango ditugu, eta guztiak ere milioika urtekoak.



**INDUSTRIA ETA AUTOMOZIOTAKO
LABAINGARRIAK BERE INSTALAZIO BERRIETAN**

Kataideko Industrialdea 1 eta 2
Musakola z/g 51 postakutxa. Tfnoa: 79 46 33 /78 Faxes: 798411 ARRASATE

VE ECUADOR

Kontzesiño 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

LARRINGAN

auto gidarien eskola

**KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN**

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE

Aozaratzako Monitore Eskola

17,5 milioiko inbertsioaz, Gabonetan urtebete

Hezkide Eskola orain hamar urte hasi zen lanean Donostia, Larraun eta Altzoko monitore-eskolekin. Helburua, kristau talde eta erakunde ezberdinek beharrezko dituzten monitoreak prestatzea, gaurko gazteriarri erantzun eta irtenbideak egokiro emateko.

Dena den, Hezkide Eskolak hutsunea ikusten zuen Deba Garaian. Gotzaigotik toki aproposa bilatzen hasteko eskatu, eta azkenean Aozaratzako jo zuten gune egokitzat. Gauzak horrela, 1988ko ekainean hasi zituzten obrak, monitore-eskola 45en bat lagunentzako prestatu beharra zegoelako. Presaka aritu ziren, eta 17.792.368 pta.ko gastuaz Gabonetarako amaitu zuten dena.



Azatzako Monitore eskola

Nondik eta zer

Esan bezala, Aozaratzako Monitore Eskola Deba Garaiko beharrei zuzendua dago. Gauzak horrela, besteak beste honako herri haueetatik etorri izan dira ikastaro ezberdinak: Bergara, Aretxabaleta, Eskoria-tza, Oñati, Arrasate, Antzuola, Eibar, Elgoibar, Donostia, Irun, Urretxu, Zumarraga, eta Deba.

Guzti horientzako, dagoeneko prest daude 1989-90 kurtsorako ikastaroak ere: hirugarren mailako

monitorean ikastaroa, skaut ikastaroa, lehen mailako monitorean ikastaroa (euskaraz emango den lehen), ikastaro trinkoak, kurtso monografikoak, errezu-tailerra, musikaz jolasean, gizarteko baztertuen hezitzaileak prestatzeko ikastaroa, etab.

Guztiak ere asteburuetan izaten dira, larunbat goizetik igande eguerdirarte irauten duten emanaldietan.

Titulazioa


Hezkide Eskola, Federacion Es-

pañola de Escuelas de Tiempo Libre Cristiano delakoaren barne sartua dago; ondorioz, bertan ematen dituzten tituluak balio zibilekoak dira, Eusko Jaurlaritzak homologatzen dituelarik.

Hain zuzen ere, honako titulu hauek lor daitezke: monitorea (1, 2 edo 3. mailan), kanpamendu zuzendaria (5 kurtsoan), animatzaile sozio-kulturala, eta gizarteko baztertuen hezitzailea (zaharrekin, elbarrituekin, atzeratuekin, etab).

Uribarri 12,
Tfnoa: 77 00 67

ARRASATE



BETI ONA

Gimnasioaren ordutegia

Lanegunetan: 9-12,30 eta 15-21,45

Larunbatetan: 10-13

KUOTAN ZARTURIKO ZERBITZUAK

- Mantenimendu-gimnasia
- Pisu-gehitze edo gubxitzea
- Beste kirol batzuetarako prestakuntza
- Gizonezko eta emakumezko kulturismoa
- Fitness
- Lesioen osaketa
- Sauna


APARTEKO ZERBITZUAK

- Masajea
- Estheticienme

GIMNASIOA

Txandaka

Euria bihotzean



Mikel Hernandez Abaitua (*)

Yoyes edo Brouard (edo Hiperco-rekoak etabar) hil zituztenean sentituen oinaze berbera sentitu dut Muguruza hil dutenean ere. Ez da kontraesana Imanolen alde sinatzea eta Muguruza hil dutenak salatzea eta gogorki kritikatzea. Herri honetan dugun gerlan bi fronte baino gehiago dago. Esan behar da Imanolen alde sinatu behar dela nahiz eta alde batekoek esan muntaia dela, eta salatu behar dela halaber Irantzu Mugeta guztiei erasotzen dietenean, nahiz eta beste aldekoak muntaia hutsa dela esan. Zeren honetan jende asko gara ezein alderdi edo koalizio politikorekin identifikatzen ez garenok eta hala ere, euskal kulturaren alde, independentziaren alde, politika ezkertiar baten

alde gaudenok. Eztabaida egon daiteke jakina ze independentziaren alde, ze politika ezkertiarren alde. Baina HBn ez gauden ezkertiar asko ez gauden EEn ere, eta are gutxiago alderdi politiko ezkertiar es-

pañolen batetan.

Posible da abertzale izatea, independentziaren alde egotea, ezkertiar izatea, estatu torturaztzaile eta hiltzaile guztien aurka eta inperialismoaren kontra egotea eta halaz eta guztiz ETaren kontra ere egotea. Eta bide hori erreibindikatzeko dut oraingo ezein erakunde politikorekin bat ez gatozenontzat.

Zeuen bihotzetan lez, euria ari du ene bihotzean ere, baina tantek ez dute lausotzen esperanta hezea.

(*) Idazlea

Kooperatiben Biltzarra

Abenduaren lehenengo astean egin zen Kooperatiben II. Biltzarrean, proposamen garrantzitsuak aurkeztu ziren. Europar merkatuan konpetente bihurtu beharrik, jerarkiazioa azpimarratu nahiko lukete (honez gero indizea 1etik 6ra zabaldu dute), ezaugarri soziologikoa utzi eta merkatal zentzuagatik aldatu, eta era berean "holding" egitura onartu (kooperatibismoari uko egin gabe). Dena den horiek proposamenak besterik ez ziren izan, eta erabakiak zortzi hilabete baino lehen burutu nahi den III. Biltzarrean hel daitezke.

Ura Urkulun

Herri askok ura faltan sentitzen duten bitartean, Arrasate eta inguruetan ez da halakorik gertatu. Oraindik ere 5.557.000 m kubiko ur gelditzen dira Urkulun, hau da, ahalmenaren %57a. Gogoratu urtegi honek 52.000 biztanle hornitzen dituela, eta momentuz behintzat arazo gehiegirik barik. Baserritarren batzuk kezatu izan dira bakarrik, baina eurei ere kamioiez bialdu zaie ura. Euria heldu bitartean, beraz, lasai egon gaitezke oraingoz.

Aitor Azkargorta, Kanto

Espetxeratua dagoen Aramaixoko gazte honen familiak Bame Ministeritzaren aurkako salaketa aurkeztu zuen, Aitorren egoera psikiko txarra dela eta. Eskizofrenia paranoidea jasaten du, baina halere Bame Ministeritzak uko egin dio behar duen tratamendua emateari. Aramaixoko Udalak ere salaketan parte hartzea erabaki zuen pleno berezian, HB, EA eta PNVren botuekin.

"Arrasate 89" sariak

Datorren ostegunean, abenduak 21, aurtengo "Iokin Zaitegi itzulpen laburren III. sariak" eta "Arrasate 89" lehiaketa ezberdinen irabazleen aldarrikapena egingo da Monterronen, 7etan. Ondoren sari banaketa. Gogoratu antolatzailea AED elkartearen dela, Udalaren eta AKMren laguntzaz.

Besaideren batzar nagusia.

Asteartean, abenduak 19, arratsaldeko 8etan Besaide Mendizale elkar-teko batzar nagusia egingo da. Tokia, Besaideko egoitza, Garibai 3 behea.

Batzar nagusian jorratuko diren gaiak: Diru kontuen agerpena, 90erako egitaraua, Euskal Herriko mendizale elkartearen batzar nagusirako txostena prestatu, autobia, etab.

Landaluze urdaitegia

Espezialitateak:


Urdaiazpikoa
Iberikoa
Ahate-gaiak

Foie
Confit
Bloc

Serranoa
Paletilla
JATETXETARAKO SALMENTA

Magret
Pate

Iturriotz kalea 7, Tfnoa: 79 14 86 ARRASATE



Abenduaren 5ean eta 12an, AEDren egoitzan naturzaleen sukaldaritzari buruzko ikastaroa antolatu zuten, **Gerarta Otxotorena** lasartearraren eskutik. Bertara berrogei bat emakume hurbildu ziren.

Izen propioak

■ **Arantxa Errasti**, 41, EAko zinegotziak dimisioa aurkeztu zuen Aretxabaletako udalbatzan, non bi urtez egin duen lana. Ederlanen eta Ulgorren ibili ondoren, gaur egun Auzo Lagunen dihardu, merkatal administrazioan. Seguruenik Ramon Rodriguezek beteiko du haren hutsunea udalbatzan.

■ **Migel Andueza**, 36, bergarar dominikoa atxilotu egin zuen El Salvadorreko poliziak. Egun batzuetan zehar bost ordutako itaun saioak jasan ondoren, askatasuna eman zioten, 24 ordu baino lehen alde egiteko mehatxupean.

■ **Juan Ramon Argarate**, 34, Legarreko arrasatearrak JRA zerbitzu orokorretarako enpresa jarri du Algoran, itzultzaileak, azafatak, ume laguntzaileak, etab. eskaintzen dituztelarik. Juan Ramon Sopelan bizi da. Bederatzi urte eman ditu Bizkaian euskara irakasten.

■ **Nerea Garitano**, 18, antzuolarrak Euskadi Irratiak zozkatutako Seat Marbella irabazi du. Bergarako Instititutuko ikasketak amaitu ondoren Diseinua ari da ikasten Donostian. Kasualitatez, atera berria du gida-txartela.

■ **Jesus Narvaez**, 45, Bergaran jaiotako arrasatearrak Euskal Herriko fosilen erakusketa ireki du Monterroneko kultur etxean. Jesus autodidakta da Geologia eta fosiletan. Abendu honen hasieran lehen saria irabazi zuen Donostian egindako nazioarteko erakusketan. Aurki kooperatiban dihardu lanean.

Abenduaren 6an, urtero bezala, herriko neska-mutikoez **San Nikolas** eguna ospatu zuten. Aurtengoan, Kondekuako balkoitik behera egin zuten bolo-boloa, eta zain zeuden haurrak denbora guztia kantari: *Neskei bapez, mutilei dana... Mutilei bapez, neskei dana!*



Dorletako amaren eleizan ezkondu ziren **Tirso Martinez** eta **Teresa Dolara**, joan zen uztailearen 30ean. Ezta bidaiaren Menorcarara egin zuten senar-emazte berriek. Aurrerantz, mila zorion!



Epele




ARRASATE KRISTALDEGIA
Badakizu zer egiten dugun kristalarekin?
Hori eta gehiago

Nafarroa Etorbidea 25, etxabehea. Tfnoa: 79 71 98 ARRASATE

Aramaio erreka-aren kolektorea

Erreka garbi ikusteko itxaropen izpia

Gure herriak zeharkatzen dituzten errekek beltz, hori edota batek daki zein koloretakoak ikustera ohituta gaude. Gure nagusiek eta ez hain nagusiek garbi gogoratzen dituzten erreka hauek, duela 30-40 urte hiltzen hasi ziren eta gaur egun, jaio eta kilometro gutxi batzuk baino ez dituzte garbi egiten. Gipuzkoako Foru Aldundiak uren hornidura eta saneamendu plana jarri zuen martxan duela zenbait urte. Gure herrian hornidura lanak bukatuta daude, garbiketa lanen txanda delarik.



Aramaio erreka erabat kutsatua Arrasaten sartzen denerako

Debako kolektorearen proiektua

Gipuzkoako Foru Aldundiak uren horniketa lanak bukatu ondoren Deba Bailaran zehar ur zikinak biltzeko kolektorea egiteko proiektua du. Edozein modutan ere, Arrasateko Udalak horniketa lanak bukatuta dituztela ikusirik eta Foru Aldundiak garbiketa lanetarako presarik ez duela jabetuz, lehen pausua ematea erabaki du Aramaio erreka garbitzeko lehen lanei hasiera emanez.

Aramaio erreka Arrasateko lurretan sartzean hasten da zikinkeria eta kondarrak jasotzen, gorago bere urak garbiak eta arrainak bizitzeko baliagarriak direlarik. Udalak uren kalitatearen eta egoeraren ikerketa eskatu zion Foru Aldundiari iaz. Ikerketa horrek bere ibilbidean dauden enpresek zein zikinkeria mota jaurtitzen duten argitzen du. Bestalde, aurten herriko zein etxetako urak

jaurtitzen diren eta Aramaio erreka-ara doazen ur guztiak, erreka-estalkia aztertu dira. Datu guzti hauek eskuartean, garbiketa planaren proiektua eskatu zaio Proditex enpresari.

Estalitate zatiak nahiko ondo

Aramaio erreka bere ibilbideko zenbait lekutan estalita dago. Garbiketa plana martxan jarri ahal izateko

tan sartu zen. Aitortu digutenez, harriduraz ikusi zuten estalkien kontserbazio egoera ona. Estalkia hiru zatitan egingo dago, zati bakoitzean egitura desberdinaz. Horrela, lehen zatian estalkia bi tunteletan banatuta dago, bigarrenean hirutan eta azken zatian zutabez eutsia. Egitura aldaketetarako zaborrak pilatzeko gune oso aproposak ditugu normalean beraz, harridura zaborrik ez ikustean. Edonola ere, estalkia zati batean azpitik janda dagoela ikusi zuten, arbola bat ere tratatuta zegoelarik. Edozein modutan, Udaleko zerbitzu teknikoek dagoeneko errekatik jasoa dute arbola.

Industriek jaurtitako kondarrak

Aramaio erreka, Santa Agedako Psikiatrikoak, Kobateko harrobiak, Auzolagun eta Ulgor kooperatibek eta Amat eta Trefasa lantegiak botatuko kondarrak jasotzen ditu.

Lantegi batek baino ez du depuradora, Ulgorrek Garagartzan duen lantegiak hain zuzen. Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako ikerketaren arabera, erreka Gipuzkoan sartzean, arraintzat bizigarria da nahiz eta kutsadura organiko apurren bat izan. Santa Ageda pasatu ondoren, urek degradazio nabarmena jasaten dute Psikiatriko bietatik botatzen diren kondarren ondorioz. Berauetatik jaurtitzen diren kondarrak organikoak izan arren, kopuru handiegian botatzen dira. Hau dela eta uren uhertasun mailak gora

Udal teknikariek miatu egin dute

Aramaio erreka, estalita doan ibilbidean

erreka zati hauen egoera eta zati hauetan erreka-zenbat ur jaurtitzen den jakitea ezinbestekoa da. Lan hauetan adituak diren zenbait pertsona duela bi aste erreka zati haue-

egiten du eta solido ugari aurkitzen da bertan.

Kobatetik jaisten den erreka-zenbat ere Aramaio erreka-ri ematen dizkio urak. Harrobiaren ondorioz urek

mineral karga handia dute eta bertan solido ugari aurkitzen da.

Ulgor kooperatiba pasatu ostean degradazioa gehitu egiten da; uren gatz maila igo egiten da metalak agertzen diren bitartean. Ur kutsatuak depuradoran tratatuak izan arren kutsakorrak segitzen dute izaten.

Aramaio erreka Arrasatera sartzean dagoeneko Auzolagun, Amat eta Trefasa lantegiek isuritako kondarrak jasoak ditu.

Aranzadi elkarteak bestalde, erreka konposaketa faunistikoren ikerketa burutu zuen. Ikerketa honetan ere erreka Arrasaterantz hurbildu ahala hondatzen doala somatzen da, Garagartza pasa ondoren duen konposaketa faunistikoa oso kutsatua den lekuetan tipikoak diren fauna duelarik.

Edonola ere, erreka garbitzeko duen botere handia azpimarratzen da. Kondarrak jaurtitzeari utziz gero, erreka berez garbituko litzate-



Ustel usaina darion arren, barrukoa nahiko egoera onean topatu dute

keela azalduz. Hala ere, erreka zenbait gunetan-kanalizatuta dago, gune hauetan arrainak ezin direlarik bizi zolua leuna izatean arrainek ezin aurki dezakete eta inolako gordelekurik.

Beraz, erreka dagozkion datu

guztiak eskuartean izanda, Aramaio errekan kolektorea jartzea pentsatu du Udalak, bertatik ur zikinak bideratu ahal izateko. Proiektua amaitu ondoren Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkeztuko dio Udalak honek subentziona dezan.

Santa Agedako ur jauziak

Erreka edota uren hondatze prozesuan etxe eta lantegietatik jauritzen diren zaborrek berebiziko garrantzia badute ere, erreka-hobian egin daitezkeen aldaketek ere paper garrantzitsua jokatzeko dute, hala nola ur jauzi artifizialek, ubide aldaketek etab. Aldaketa hauek, beharbada ez dute uraren kalitatean eraginik sortzen, bai ordea, arrainen bizia oztopo larria jarri. Aipaturiko Gipuzkoako Foru Aldundiaren ikerketak Aramaio erreka botatzen diren uren jatorria aztertzeaz gain, jauzi hidraulikoen egoera eta berauek sortzen dituzten ondorioak ere aztertu ditu. Aramaio erreka ibilbi-

dean bi jauzi hidrauliko aurkituko ditugu, Imanol Hormaetxea eta Txirrita errota hain zuzen. Jauzi hidrauliko hauek faktore ezkor ugari sor diezaioke erreka ingurugiro fisikoaren aldaketaren eta uraren aprobetxamenduaren ondorioz. Erroten ihardueraren ondorioz, kondar-urak ager daitezke, jauziak arrain migrarientzat oztopo suertatu, arrainak erroren azellean hil, ur-tira guneak urgeldi bihurtu, etab.

Aramaio errekan, aipatzekoa da errota bi hauek euren dagozkien erreka zatietan sortzen duten ur-erori jaitziera, jauziak arrain migrariei jartzen dieten oztopo eta sare babestaileen gabezia. Faktore horien ondorioz, arrainei oso zail suertatzen zaie zati horietan bizitzea.

Ikerketaren arabera, errota bietan hartu beharko lirakeen neurriak parekoak dira arrain eta errekaentzat kaltegarriak izan ez daitezken.

Kasu bietan ur-erori minimoa gorde beharko litzateke errekan, sikute garaietan errota baino gorago erreka duen ur-emariari eutsiz. Jauzi hidraulikoen jabeek amuarrainek migratu ahal izateko ibilbide egokia egin beharko lukete eta ura hartzen den lekuan eta ura botatzen den lekuetan sare babestaileak jarri.

Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako ikerketak, kontzesioen ezaugarriak baieztatzea gomendatzen du, egoera irregular ugari ikus baitaiteke errota bietan, erabilera aldaketa, jauzien handitzea, etab


**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea 30, Tlfnoa: 79 89 89 ARRASATE

Aldean eraman alde guztietara



- Gipuzkoako Kutxako Txartela aldean eraman egunera egoteko. Diru-arazorik ez izateko. Kutxako zerbitzu guztiak eskura izateko modu automatikoan. Ordu-arazorik gabe. Edozein dendatan ordaintzeko modua izateko, dirua aldean eramaten ibili gabe. Eroso-eroso. GK Txartela duzu praktikoena. Oraindik gabe bazaude, eskuratu azkar. Gipuzkoako Kutxako GK Txartela aldean eraman alde guztietara.

Zure zerbitzura dauden Kutxazain Automatikoak:

- Garibaiko Sukurtsala
- Zigarrolako Sukurtsala
- Munareko Sukurtsala

GK:

GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA



Elixabete Altube

Arrasatetik Unescora, Gernikatik zehar

Elixabete Altube, Sebero Altubereren lobaren oroimen gazi-gozoak

Arrasaten jaio eta utebeterekin alde egin zuen hemendik.

Ez du ezer gogoratzen Mondragoeri buruz . Bere burua gernikar eta euskalduntzat duen emakume irribarretsu hau, mundu erdia zeharkatu ostean Miarritzen pausatu da . Gizon inportante askoren ondoan bizi izan da: Benigno eta Sebero Altube, Ramón J. Sender, August Sauzon. Gordetzen dituen oroimenak gazi-gozoak dira. Elixabete dugu, 78 urte, senarraren aginduari jarraituz egunero bazkaltzera Hotel du Fronton-era joaten den emakume argia.

“Ez dakit zein kaletan jaio nintzen, urtebeterekin edo Elorriora joan ginen eta”. Benigno Altube dultzainajole famatuaren zortzi semealaben arteko alaba bakarra. “Osaba Seberok ere jotzen zuen dultzaina”.

Gabardina eskegi eta jangelara garamatzate. Argia eta garbia da. Leiho baten ondoan jarri gara bostok. Elixabete pozik. “Hementxe bazkaltzen dut egunero, aldameneko mahai horretan. Philippe etortzen zait zerbitzatzera.

Jai zoriontsuak

TROKO
JANTZIDENDA

Olarfe 6, Tfnoa: 79 46 94 ARRASATE

ARTE LENIZ

koadro eta
moldurak

Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE



Bera euskalduna da, Hazparnekoa, eta euskaraz berba egiten dugun bakarrak gara”.

“Urtebete edo, nuela, Elorriora joan ginen aitak lantegi bat, fundizioa uste dut, ipini nahi zuen eta. Aitak musika banda eratu zuen eta Eliz Abesbatzeko zuzendaria izan zen. Sei urte nituela, 1918an, ama hil egin zitzaidan. Regina Azkoaga, Garagartzakoa. Zortzi ume gelditu ginen. Tio Seberok eta, umerik ez zuenez, neu jaso ninduten. Gernikan bizi zen tio ordurako. Musika bandako zuzendari izatera joan zen hara eta han geratu”.

Benigno eta Sebero

Benigno eta Sebero, Elixabeteren haurtzaro eta gaztaroa markatuko zuten gizonak. Izaera desberdineko anaiak. “Aita ezkondu egin zen berriro, Madril inguruko Ayala abizeneko andra batekin. Tio Seberok gogor hartu zuen aita. Badakizu, ama maketa zen eta. Aita negarrez egon zen tio Seberoren aurrean. ‘Horrelako gauzak lehenago ikusi behar dituk. Negar eginez ez dok ezer konponduko”. Nola jarri zen osaba! Ni barnetegi batera bidali ninduen eta amaordeak ni ez bisitatzeko agindu zuen”. Sebero.

“Alemanak Baionan sartu zirenean tio Sebero harrapatu zuten eta ondoko konzentrazio zelaira eraman zuten”

“Batxilergoa Bartzelonan egin nuen eta Gasteizko Karmelitetan. Tio Sebero artean arma-lantegi batean sartu zen, gerente. Alkartasuna zeritzan, gaurko Astra famatua. Han zebilela ‘Sivispace’ pistola patentatu zuen. Etxean daukat pistola horren patentea”.



Imanol Sender Altube, bere emaztea, August Sauzon komisaria eta Elixabete, Imanolen ezteietan

Noizbehinka ahaztu egiten zaizkio datak eta izenak. Horrelakoetan Jose Mari Velez de Mendizabal eta Edurne, haren emazteak, lagundu egiten diote.

“Oporretan Albina Madinabeitia nire lehengusina etortzen zen Gernikara. Egutero jotzen zuen bibolina. Horrelakoetan osaba pianoan jartzen zen eta lagundu Albinari. Egutero izaten genuen kontzertua. ‘Zure pianoa beste hori da’, esaten zidan tiok, idazmakinari seinalatuz. Haren idazlan gehienak neuk pasatzen nizkion makinaz”.

“Osaba bost urtez izan zen Gernikako alkate. Herriak ikaragarri maite zuen. 1935ean dimitiu egin zuen. Gero Toña, karlista akaberakoa, jarri zen alkate. Zer desastre! Tiori zeukan ia guztia lapurtu zion. Gerra hasi aurretik nik hainbat altzari eskatu nion Parisera bidaltzeko. Osabak ontzitegi bi, euritakontzia, eta kutxa bidali zizkidan. Eskerrak. Gainontzeko altzariak Toñak eraman zituen”.

Baiona eta UNESCOra

“Gerra zibila hasi ondoren osaba-izebak Baionara etorri ziren”.

“Urte txarrak izan ziren haiek. alemanak Baionan sartu zirenean tio Sebero harrapatu zuten eta Baiona ondoko konzentrazio zelaira eraman zuten. Osabari atake batek eman zion. Euskal Ordezkaritzakoek jakin izan zuten, alde batetik bestera mugitu eta handik ateratzea lortu”. Garai hartan ezagutu zuen Ramón J. Sender idazle espainiarra, bere bizitzako hirugarren gizona. Handik Pabera joan ziren bizitzera. 1958ra arte, han biziko ziren.

Elixabete Parisera joan zen eta munduko iheslari askok bezala UNESCOn aurkitu zuen lana, interpretaritzan. Ingeles eta frantsezetik gaztelaniara itzultzen zuen.

Madame Sauzon de Altube

Mahai gainean Beaujolais botaila ardo dago, 88ko uztakoa. Etiketan Sauzon du idatzia. 1959tik aurrera Elixabete

Gabon zorientsuak igaro ditzazuela

TOYOTA

Galarza
Automobilak

Ibargarai 37, Tfnoa: 76 50 99 BERGARA

Sauzon de Altube bait da. August Sauzon abokatu lyondarra bere bizitzako laugarren gizona, bestelakoa zen. DST kontraespioitarako agentzian zebilen lanean, goi mailan beti, Direction de la Surveillance Territorial-eko zuzendari orokorra izatera ailegatu zen arte. "Gizon trankila zen, zuzen ikusten zituen gauzak".

Asko bidaiatu zuen Sauzon superkomisariaren ondoan: Marseille, Paris, Algeria, Venezuela, Suedia, Danimarka... "Algerian geundela. Gabon egun batez basamortuko herri batera joan ginen Eguberria ospatzera. Egund hartan beldurra izan nuen fellegas deituak bideetara iritetzen ziren eta. Niri errebolberra eman zidaten. Gidariak granadak zeramatzan. Augustek inoiz ez zuen armarik eramaten, ondo babestuta egoten zen. Heldu ginenean jakin izan genuen FLNkoak infiltratu egin zirela herrian. Aldemeneko mahaikoak bain

zuzen ere, FLNkoak ziren eta txanpaina edatera gonbidatu gintuzten".

Mila kontu jakin behar du itxura makaleko emakume honek. Mirestu egiten du De Gaulle jenerala. "Baliantea zen", Mitterrandez, berriz, bestelako eritzia du, "koldarra eta gezurtia".

1963ko abuztuaren 27an, Sebero Altube hil zeneko egun hartan Gernikan zegoen. "Arrienekoek deitu zidaten, laster joateko. Tio ikaragarri poztu zen ni ikusteaz. Herriko banku eta aurrezki kutxetara bidali ninduen, zituen diru guztiak atera nitzan lehenbailehen. Inork ez zidan eragozpenik jarri eta halaxe egin nuen. Tiok UCEMen zituen akzioak nire aurrean saldu zituzten".

"Alde batetik bestera ibiliko nintzen, baina jubilatuta arte UNESCOn segitu nuen lanean. Gustora nenbilen neure lanean eta lagun asko egin nuen. Han ezagutu nuen Julio Cortázar idazle argentinarra. 'Hola Isabelita!' esaten

zidan ikusten ninduen bakoi-tzean". Urriaren 23an hiru urte bete dira alargundu zenetik. "Nire senarrak erabaki zuen Miarritzera etortzea, zortzi urte direla. Harez geroztik hemen bizi izan gara. Apartamentua erosi genuen eta orain neuk segitzen dut hemen. Hala ere, laster Pabe aldera joango naiz, Jean-Louis seme osagilearen ondora. Ez du nahi ni bakarrik bizitzerik".

Bazkaria bukatutakoan ez digu ordaintzen utzi. Philippe hazpandarrari bi hitz esan eta honek gure txanponik onartu ez. "Zuek lasai, baditu sosak andereak, baditu", diosku irribarre maltzurrez.

Jatetxetik irten eta bere etxerantz eraman gaitu, ondoko apartamentu erakuntz handira. Isiltasuna da nagusi. Etxebizitza erakutsi, argazki zaharrak ikusi, istorio arteko txanpain hurrupadak, txokolatinak erostera jaitsi eta zazpi t'erdietako mezatarako bidean utzi dugu Elixabete.



Ramón J. Sender

Gerra zibila hasi eta gutxira Baionako Hotel des Basques-en zeudela, Ramón J. Sender idazle espainiarra ezagutu zuen, Elixabeteren bizitzaren hirugarren gizona, izar iheskorren antzo pasatuko zena. Senderrek ordu-rako 'Imán' nobela idatzia zuen eta

1935eko Literatur Sari Nazionala irabazi 'Mr. Witt en el Cantón' elaberriarekin. Nahiko ezaguna zen, beraz. Alarguna zen, bi seme-alabarekin. Faxistek efusilatuta egin zuten haren emaztea, Extremadura aldean. Ea bapatean maitemindu ziren galde-tzen diodanean, irribarre egiten du. "Ez. Musika izan zen. Gu jarrita geunden mahaian eta nire gustoko pieza klasikoa ari ziren jotzen irratian. Jaiki eta bolumena igo nuen. Horrek atentzioa eman zion Ramoni. Berak ere pianoa eta bibolina jotzen zituen". Ume bat izan zuten, Imanol Sender Altube.

"1937an Bartzelonara joan ginen, badakizu, nire aita eta han ziren. Han zibilez eskondu ginen Sender eta biok, Gobernu Militarrean. Lekukoak Sabino nire neba eta Ramonen arreba izan ziren. Dena dela, ezkontza hark ez zuen ezertarako balio. Dena Ramonen

muntaia izan zen. Bazekien oso familia katolikokoak ginela eta bere aldetik batzuk halakoak zirenez, ba horrelako parodia antolatu zuen... Azeri hutsa zen Sender". Garraztasuna darie hitzoi. "Beranduago Ameriketara joan zen beste semealaben bila eta han gelditu zen".

Seberok Senderri buruz zer esaten zuen itaundu diogunean, tiok ez zuela ezagutu diosku. "Badakizu, hura ere maketoa zen...".

Urte asko pasatu da Sender eta Elixabeteren bizitzak banandu zirenetik. Hala ere, bizitzak ustekabe bat baino gehiago eman ohi ditu. "Jean Louis nire seme osagilea azken azterketak egin zituenean badakizu espainoleko azterketan zer eman zioten komentatzeko? Ramón J. Sender-en 'Réquiem por un campesino español'. Ez da kasualitatea? Liburu hori irakurtzea gustatuko litzaidake".

IBARRETA ETXEA

Oihaldegi eta jostundegia


Postas 3, Tfnoa: 23 20 60 GASTEIZ

IBARRA Garajea S.A.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua



ARRASATEKO UDALA

Arrasateko Udalak
urte beterako kontratatu behar du

Erdi edo Goi Mailako Teknikari bat

Drogomenpekotasun-Prebentzioko Udal Zerbitzurako.

- Hautaketa-prozesua aginduko duten oinarriak interesatuen eskura daude Udaletxean.
- Eskerak aurkezteko epea abenduaren 21ean, osteguna, eguerdiko ordu batetan amaituko da.
- Hautaketa-probak abenduaren 27an, asteazkena, goizeko 10etatik aurrera, burutuko dira Monterron Jauregian.

Arrasaten, 1989ko Abenduaren 11n
Alkatea

KiDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5. Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

BOLINTXO
kirolak

Ibargarai 10, BERGARA

SOKOA

Zeharkale estalia. Arrasate

EPELDE

argazki denda

Iturriotz 24

Muruamendiaraz
gozo-dendak

jai zoriontsuak opa dizkizue

Erdiko kale 28, Tfnoa: 79 15 34 ARRASATE



Arrasate Pasealekua, 4
79 14 90 ARRASATE

ARRASATE
PRESS

79 71 64

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

Finalari begira

Jon Sarasua, aurtengo Txapelketako bere gorabeherak

Jon Sarasua da Aretxabaletan azken urteotan arrakasta handien izan duen bertsolaria. Duela lau urte Euskal Herriko Bertso Txapelketako finalera iritsi zenetik jo ta ke plazarik plaza ibili den bertsolari honek Leintzeko bertso eskolan egin zituen bere hasierako bertsoak eta oraindik ere eskola horretan dabilzanetakoa da. Azken txapelketa honetan finale-ra heldu ez bada ere esan beharra dago oso paper ona egin duela eta juxtuan gelditu dela finaletik kanpo. Txapelketa bukatzen dagoela eta beregana jo dugu eritzi bila.

— Arrasate Press: Nola ikusi duzu zeure burua txapelketa honetan?

— Jon: Beti pentsatu dut txapelketa gauza erlatiboa dela, edozer gauza pasa daitekeela, nahiz eta nire ingurukoek aurreko txapelketan baino gehiago egingo nuela espero. Bi egun horietan edozer gauza pasa zitekeen eta joan nintzenerako erlatibazio hori barneratuta neukan. Txapelketa honetan ilusio gutxiagorekin ikusi dut neure burua. Aurreko txapelketara galtzekorik gabe joan nintzen, baina honetan ezin ukatzeagatik eta normalena joatea zelako hartu dut parte. B. Elkartetik ere txapelketa beharrezkoa zela ikusten genuen baina hala ere gogo gutxiagorekin joan naiz.

— Azken asteotan egunkari baten azaldu den eritziaren arabera finalean egon beharko zenuke, ala?

— Beno, hori eritzi bat da, baina nik uste dut epaimahaiari egindako kritika hori gaizki formulatua dagoela. Ez zuen ni finalera joan behar nintzela bakarrik esaten, beste batek kanpoan gelditu behar lukeela ere bai, eta hori ezin da horrela esan.

— Aurtengo txapelketan polemika egon da epaimahaiarekin, ba al duzu ezer horri buruz esateko?

— Garbi dago beraien lana oso erlatiboa dela, baina guk aukeratu ditugu eta txapelketaren hasieratik amaierara gure konfiantza osoa dute eta punto. Egia da epaimahaiak hobetu beharra daukagula beste batzuetarako, baina hori denrarekin eta landuz hobetuko da.

— Eta bizkaitarren inguruan?

— Hori polemika penagarria da. Bertsolari elkartean beti saiatu gara probintziakerietatik kanpo ibiltzen eta probintziak daudenik ere ahalik eta gutxien sinisten, baina badago jende bat hori buruan daukana eta zoritxarrez zarata ateratzen dute.

“Ezin daiteke bertsolaririk onena zein den sekula esan eta hori bertso munduan hurbil lan egiten duen edozeinek asumituta dauka”

— Zenbatetarainokoa izan da aurreko txapelketak zuzan izan duen pisua?

— Ni nahiko mentalizatua nengoen horrek ez zuela influentzia handirik izan behar. Nahiz norberak hori garbi izan jendearen presioa handia da.

— Edozein modutan gustora nago, pertsonalki begiraturik finalera ez sartzeak bere bentajak ere baditu. Orain



Jon Sarasua

denbora libre gehiago ateratzea espero dut.

— Gaztea izanik eta finalera iritxita bertsolari atipikotzat ezagutu zintuen hasieran jendeak. Hasi al da hori aldatzen?

— Ez dut uste oso atipikoa izan naizenik. Tablatu ganean normal ikusi nau jendeak, baina hori egia balitz ere ez litzateke txarra izango, beharrezkoak dira bertsolari atipikoak ere.

Hitz joku bat eginez eta atipiko eta tipiko artean konparatuz, bertsolari gehienak tipikoegiak direla esango nuke. Mezu berria ekarriko

berrietako jendea ere bertsolarizatzen kanpo gelditzen den bezala. Bertsolari gazte askok topikoak erabiltzen dituzte edo ditugu askotan, eta hor kanpo zabala dago lan egiteko.

— Aurtengo favorittoa?

— Nik nire buruan Lopategi, Lizaso eta Egaña ditut, baina oso garbi utzi behar da hori ere egun bat izango dela, igandean batek irabaziko badu ere astelehenean beste batek irabazi dezakeela. Txapela jantziko duena ez da bertsolaririk onena izango.

— Eta hori?

— Denagatik, batetik egun guztiak bertsolariarentzako ezberdinak direlako, epaimahaiak ere erizpide konkretu batzuk dituelako. Adibidez, finala bukatu eta Santamasetan Arrasaten Txapeldunak baino saio hobea egin dezake zortzigarren gelditu denak.

— Orduan zure eritzi ezin daiteke esan onena zein den?

— Ez, hori bertsolaritzaren inguruan mugitzen den edozeinek asumitua dauka gainera. Txapelketa, bertsolaritzaren arrakasta soziala lortzeko egiten da.

Danel Goikolea



Jose Antonio Gay



Rugby taldea

Arrasateko kirolaririk onenak

88-89 Aukea Sariak, J.A. Gay eta Rugby taldearentzat

Orain gutxi erabaki ziren 88-89 denboraldiko kirolari eta kirol talderik onenei eman beharreko Aukea Sariak. Erabakia hartzeko Antton Azurmendi (zinegotzia), Patxi Yarza (Aukea), Alberto Garai (medikua) eta komunikabide ezberdinetako ordezkariak bildu ziren.

Bi kirolari aipatu ziren hasieratik hautagai moduan. Alde batetik Ignazio Maizbide jabalina jaurtitzaila, eta bestetik Jose Antonio Gay korrikalaria.

Maizbidek hogeitalau urte ditu, eta Euskadiko errekoraren jabe dugu, 59,74 m.ko jaurtiketaz. Euskadiko selekzioaz Irlandan izana, eta Estatuko sailkapenean hamabigarrena. Jose Antonio Gay-k, ostera, hemeretzi urte ditu. 200 m.tan Espainiako txapeldun juniorra, eta

400 m.tan Euskadiko txapelduna.

Eztabaida luzearen ondoren, aurtengo saria Jose Antonio Gayrentzat izango zela erabaki zuten. Dena den, Maizbideren lana ere azpimarragarritzat jo, eta berarentzat ohorezko aipamena eskatu zuen epaimahaiak (ondorioz plaka berezia jasoko du).

Taldeei dagokienez, Arrasate Kirolak rugby, Arrasate Kirolak saskibaloia eta Arrasate Kirolak atletismo taldea aipatu ziren saria emateko orduan. Kasu honetan erabakia errazago lortu zuten: saria Rugby taldearentzat, ia desagertuta zegoen kirol honek urte gutxitan ezagutu duen bultzada eta susperraldiagatik.

Bihoakie gure zorionik beroena irabazleei, merezimendu osoz lortu bait dituzte sariak!

■ Pedruskok egurra jaso

Igandean Alegriaren aurka jokatutako neurketan, San Andresekoek 4-1 galdu zuten. Lehenengo zatian hiru gol sartu zizkioten Uribarren atezainari. Jabik 54. minutuan Pedruskoren gola egin, baina gero berriz ere laugarren bat jaso behar izan zuten. Partidua amaitzeaz zegoela, Mikel Uribesalgori txartel gorria atera zion epaileak, eta beraz atsedean hartuko beharko du asteburu hontan, Pedruskok Alavesen aurka jokatuko duen neurketan.

■ Igoa Errealean

Ligako azken bi ihardunaldietan, Jon Igoa arrasatearrak minutu askotxo jokatu ditu Errealarekin. Atletico Madrilen aurka bikain aritu ondoren (bi gol, baina epaileak biak ere baliogabetzat jo zituen), igandean ere 60 minutu eman zizkion Boronatek. Dena den, Errealak ez zuen ondo jokatu Sporting taldearen aurka, eta noski, Jonek ere ez zuen aparteko gauzarik egin. Halere, gutxika-gutxika taldean sartzen ari da, eta oraindik ere etorkizuna bere zai.

■ Saskian, denboraldi tamalgarria

Hamaika partidu jokatu, eta horietako hamarretan porrot egin du Arrasate Kirolak saskibaloia taldeak. Azkena Gasteizen aurka izan zen. Bukaeran, 85-73 arabarren alde, eta horrenbestez sailkapeneko azken postuan jarraitzen dute gure jokalariek. Aurtengoan denboraldi penagarria egiten ari dira, baina tira, oraindik ere aukera dute gauzak zertxobait konpontzeko. Larunbat hontan adibidez, Musakolan, Juven taldearen aurka. Ea ba!

**E D E L
TAPIZTEGIA**

**Gortina
Alfonbra
Koltza**

Bidakruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala
Tailerra: Zaldispe 2,
Erakusketa: Sancho Abarca, 6

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



podiuma

Gero arte, Rafa.

Astelehen goizaldean, abenduak lau, Rafa Perez hil zen Garagartzan, makina madarikatu batez istripua izan eta gero. Podium-a kirolarien txokoa izan ohi da, eta lerro hauen asmoa bere garaian futbol jokalaria izandako hogetahiru urteko gazte honi azken agurra ematea litzateke.


Pena handia dut, honez gero ezin izango dudalako berarekin elkarriketarik izan. Aspaldiko laguna nuen Rafa; Almenen ezagutu, klase berean, eta eskolako futbol-taldean ere elkarrekin aritzen ginen. Bera aurrelaria zen, eta garai haietan gaur Errealeko jokalaria den Jon Igoarekin jo eta ke ikusten genuen hor, aurkako defentsak zorabiatzen.

Pedrusko taldean ere eman zuen denboraldiren bat edo beste; badakizue, jubenil adina amaitu eta ezin futbola alde batera utzi. Dena den, Deustun Soziologia ikasten hasi eta denbora batez behintzat kirola ahaztu beharrean egon zen.

Ziur naiz lagunarteko makinatxo bat txapelketatan parte hartu duela urte hauetan, Deustun bertan eta baita Arrasaten ere. Ze gauza, futbolaren mira.

Gutariko askotxo bezalaxe, Errealaren zaletu amorratua. Ongi gogoratzen dut ez zitzaiola batere gustatu Toshack ekartzeko erabakia. Bazeudela hemen makina bat entrenatzaile, hemengoak, eta galesik ez zuela faltarik egiten. Zaragozan Kopa irabazi eta gero, barrez onartu Munduko onena zela.

Aldridge irlandarra ere heldu zi-



Rafa Perez

tzaigun gure artera, eta orduan ere Rafa kezkatu. Jon Igoaren lagunmina, arrasatearra 9 txuri-urdiñarekin ikusi nahi zuen. Ze pena, dagoeneko ez da gure artean egongo. Jonek hurrengo gola sartzen duenean, hurrengo gola eskaintzen dienean.

Amaitu berriak zituen Soziologia ikasketak Deustun. Zuzenbide ikasketak UNEDen egitekotan zebilen, eta patu petrala, orain gutxi ekin zion Garagartzan lan egiteari zorigaitzezko enbalaje makinan. Ostiraleko banatzen zituen Arrasate Pressen aleak erdikaldean; mila esker, laguna!

Txo, Rafa, bizitzak aurrera darrai, egunak egunen atzetik. Nik, ordea, zin dagit zure irribarrea ez dudala inoiz ahantziko.

*Agur t'erdirik ez
Bihotzak ez bait dit horrelakorik
uzten*

*Geroarte soilik
Geroarte, Rafa.*

■ Mondrak irabazi

Aranburuzabalak 5. minutuan sartutako golari esker, 1-0 nagusitu ziren gure jokalaria igandean Touring taldearen aurka. Horrenbestez, hamabi puntu eta lau negatiboz segitzen dute arrasatearrek, eta gogoratu asteburu honetan Pasaiara joan beharko direla.

■ Rugbyan ondo

Arrasate Kirolak Rugby taldeak 12-3 irabazi zion Mungiarri larunbat arratsaldean Iturripen. Gure jokalaria zazpi puntuz, sailkapenean azkenaurreko postuan.

■ Eskubaloian ederto

Bide onetik segitzen du Arrasate Kirolak Eskubaloi taldeak, igoeraren ametsa eskuratzeko. Larunbat arratsaldean Legazpiko La Salle izan genuen Musakolako kiroldegian, eta partidu amaieran 20-17 arrasatearren alde. Gauzak horrela, lehen postuetan segitzen dute. Ederto benetan!


■ Neskak, bidea egiten

Denbora luze pasa eta gero, asteburuan garaipen berria lortu zuten Okendo Kirolak taldeko neskek. Zarautzen jokaturako neurketan, 3-4 nagusitu ziren. Gutxika-gutxika bidea egiten ari dira, azken postuetatik irteteko. Ikusi egin behar zerbait positiborik lortzen duten larunbatean, Iturripen, Dunboaren aurka.

Denborapasen soluzioak

Euskal Herria ezagutzuz

Pago, haritz, pinu, urritz, agin, makal.



OKENDO

KIROLAK

Iritsi da OKENDO KIROLAKera udazken-neguko moda !

Maalako errabala 13, Tfnoa: 79 92 76 ARRASATE


Txapela buruan

Dagoeneko hasiak gaude aurtengo txapelketaren kinielak egiten. Mundu guztiaren ahotan dabilzan faboritoak hiru dira: Egaña, Lopategi eta Lizaso.

Zaila da txapelketa baten bertsolari faboritoak zeintzuk diren esaten baina ni ere bat nator hau aurrikusi dutenekin eta sorpresaren bat ez baldin badago kiniela asmatuko dugulakoan nago.

Txapelketa honetan egon den gairik polemikoena dudarik gabe epaimahaiarena izan da.

Ez dutela ongi puntuatu, umorea ez dutela behar hainbat baloratu, bizkaitarrei puntu gutxiegi ematen zaiela eta antzekoak. Azken honi jarraituz ez zait batere ongi iruditzen bertsozale hartzuk hartu duten postura. Ez nago ados bertsolariak Bizkaian direlako bajuago puntua-



tzen dituztela esaten dutenekin, horrela inungo zentzurik ez duen probintzien arteko konpetitibitate batean sartzen direlako, muga artifizia-lak jarritz mugarik behar ez duen hitzaren kirolean. Epaimahaiaren egon behar dutenei buruz, berdin zait guztiak nafarrak edo guztiak bizkaitarrak izanda ere bertsoa

epaitzeko egokienak baldin badira, baina hori bertsolari guztien artean erabakitzen da.

Euskal Herriko Txapelketa Nagusi honetako beste protagonistak bertsolari gazteak izan dira, orain lau urtetako ildo beretik jarraituz, hor ikusi ditugu oso fuerte Euskitze, Egaña, atxabaltarra eta beste hainbat ere, haize berriak asentatuz doaz. Mafukortaren eskutik etorri zaigu umorea nahiz eta azken saioan Telleriärekin larri ibili, bere bekainen gorabeherekin jendea poltsikoratu du eta horren ondorioz ere eritzi kontrajarriak. Giroa bero dabilela ezin ukatu.

Datorren igandean izango den finala ona izango delako esperantzaz AED elkarteak antolaturiko autobusetan Donostiara hurbiltzera animatzen zaituztet.

Danel Goikolea

NERIAN

Otalora 14, Behetxea. Tfnoa: 79 70 66 ARETXABALETA

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak
ARETXABALETA

HALTZARIAK

Poligono Matxiategi.
Tfnoa: 76 16 53
Bergara

Muñeka de trapo

Boutiqueak

Frantzia 19, Tfnoa: 28 40 35 eta Frantzia 23, Tfnoa: 28 46 96 GASTEIZ

Skoda Favorit, Ekialdearen aurpegi berria

Orain arte, Ekialdetik gure artera iritsi diren autoak ia beti izan dira itsusiak, traketsak, gogorak eta merkeak. Han nagusi diren parametroak ahalbidetzen zuten auto horien salneurria hemen egindakoena baino dexente apalagoa izatea, eta motoreen iraunkortasuna ere bereziki nabarmentzea. Baina aldi berean, parametro beroriek eragozten zuten diseinua, erosotasuna eta antzeko ezaugarriak behar adina lantzea. Horregatik ez dute auto horiek gure artean arrakasta handirik ukan.

Baina Ekialdean gauza ugari ari da aldatzen azkenaldi honetan, eta autogintza ere bai. Yugoslaviako Lada eta Yugo autoetxeek aurten aurkeztu dituzten modelo berriak asko inguratu dira mendebaldeko autoen mailara. Orain berriz Txekoslovakia-ko Skoda etxeari tokatu zaio txanda.

Favorit autoak ekialdeko auto-



gintzan sekulako iraultza iragartzen du. Karrozeria Bertona italiar diseinugile ospetsuaren da eta motorea Porsche-ren laborategietatik ateratakoa. Mekanikan ere, "dena atzekaldean" joera zaharkitua baztertu eta "dena aurrekaldean" kokapen modernora jo da, gainontzeko ezaugarriak ere mendebaldeko autoen parekoak direlarik. Auto honek 3,81 metroko luzera du, 5 ate, 1.300 m² eta 63 zalditako bat, besterik ez. Gure artean, eta 5 atedunen sailean,

Renault 4L zaharkitua bakarrik da merkeago eta Citroen AX merkeenak, txikiagoa izanik, 75.000 pta. gehiago balio du.

Auto ponpoxoak erosteko joerari aurre egiteko ausardia duenarentzat, hona hemen bere premiak duintasun osoz bete ditzakeen auto merke eta egokia.

Perestroikak haize berriak eragin ditu Ekialdean. Skoda Favorit hau horren lekuko.

Mikel Intxausti

ARRASATE S. L. eraikuntzak

(Lehen CODIMA eraikuntzak)

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE

Gabonak, erregaluak, jostailuak...

Ez dakit Gabonetan haurrak inportanteak izaten hasten diren, edo kontsumitzeko grina Gabonetan lehertu egiten den eta haurra ikutzen duen, edo Gabonetan goxotasun—eta solidaritate—sentimendu berezia pizten den.

Baina egia dena zera da: erregalua, erosketak, jostailuak, gastuak,... eta Gabonak sinonimoak izatera heltzen direla. Eta, zer erosi? zer erregalatu? Hor dago kokka. Batzuetan erantzuna, hasieran errezatzen izanik konplikatur joaten da: zer behar duen erregalua hartuko duena, zer gustatuko zaion.

Bapatean, badirudi Gabonetan gutaz, gutariko bakoitzaz, indibidualki, pentsatzen dutela.

Haurren kasuan, behar duena zera da: bere buruarengan konfidantza, oatez ere, bere posibilitate eta

ezaugarri guztiak garatzeko. Eta bere buruarengan konfidantza hori maitasunaz, komunikazioaz, haurrekin egonez, eta aktiboki deskubritzen, bere sentimenduak eta beharrak adierazten, besteekin harremanetan jartzen... laguntzen dion hainbat elementu eskainiz eraikitzen da.

Guzti hau lortzeko, balio izango dio eta erregaluek eta jostailuek, balio beharko liokete, behintzat. Horretarako, zer-nolako jostailuak bilatu behar ditugu? Ba, haurra jolasera bultzatuko dutenak, beraren irudimena piztu, fantasia garatu eta haurra ihardun eta ekitera eramango duten jostailu eta objektu aktibo eta dinamikoak. Jarrera pasiboak eta inguruan gertatzen denaren ikusle mutua izatera bultzatzen dutenak, ez genituzke onartu beharko.


Zalantzarik gabe, adin bakoitzak

baditu bere beharrak. Esan ohi da 3-6 urteko haurrak autonomia landu behar duela; zazpi urte baino gehiagoko haurrak interesak piztu behar dituela; adoleszenteak interes eta afizio zehatzak lantzen dituela. Agian, manual teorikoez gain, tokatzen zaiguna hauxe da: aurrean dugun haurraren gaitasuna—gure seme-laba, ikasle edo lagunarengana—hurbildu, eta zer behar duen, zer datorkion ongi asmatzen saiatzea. Jostailuek, liburuek, edozein motatako objektuek eta erregaluek lagun dezakete beraren beharrak eta interesak betetzeko.

Noski, nahiaren fantasia eta gure posibilitate errealean artean alde handiago edo txikiagoa egon daiteke. Haurrari gurari guztiak ezin zaizkiola eman, posibilitate eta mugen

Klarioan Taldea

AE Elkoro




Zure antena txarto badabil, esaiguzu, konpondu egingo dizugu!

Antena parabolikoak, indibidualak eta kolektiboak konpontzen espezialistak.

Magdalena 27,
Garibai 10,
Alfonso X 6,

Tfnok: 79 18 86 eta 79 45 99 ARRASATE



ARRASATEKO UDALA

Udal-Plenoak, 1989ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, hartutako akordioen laburpena.

- A-6 Areari buruzko Udal Planeamenduko AA.SS Elementuak Aldatzeko Testuari hasierako onespena ematea eta testu hori hilabeteko epean jendaurrean jartzea.
- (U.6.2, U.6.3 eta U.6.4 Unitateak) Santa Barbarako Barne-Erreformatarako Plan Bereziari hasierako onespena ematea eta plan hori hilabeteko epean jendaurrean jartzea.
- U.6.12, U.6.16 eta U. 6.18 Unitateei buruzko AA.SS.en Elementuak Aldatzeko Testuari hasierako onespena ematea eta testu hori hilabeteko epean jendaurrean jartzea.
- U.6.18 (Marko-Alde Unitatearen Barne-Erreformatarako Plan Bereziari hasierako onespena ematea eta plan hori hilabeteko epea jendaurrean jartzea.
- S.13.1 Poligonoko Konpentsazio-Batzordearen Iharduketa-Estatutu eta Oinarrien Proiektua behin-betiko onartzea.
- Taberna, Kafetegi eta Antzerakoan Instalatzeko Ordenantza Arautzaile berria behin-betiko onartzea.
- Obenerreka Plazan bizi direnen ibilgailuentzako lurrazpiko aparkaleku baten proiektuaren idazlan, eraikuntza eta ustiapena Eusko Promociones. S.A. enpresari adjudikatzea.
- Cordoba y Oro Plazan bizi direnen ibilgailuentzako lurrazpiko aparkaleku baten proiektuaren idazlan, eraikuntza eta ustiapena Eusko Promociones, S.A. enpresari adjudikatzea.
- Berritu eta birregokitzen ari diren Udaletxe eta ondoko edifizioaren ekipamendurako beharrezko altzariak erosi eta instalatzeko, Udal Zerbitzu Teknikoek idatzitako Baldintza Ekonomiko-Administratibo eta Teknikoen Pleguak onartzea.
- Jendaurrean jarri, 30 eguneko epean, A-11 Areari buruzko AA.SS.en Elementuak Aldatzeko Aurrelaburpena.
- San Kristobalera sarbidea Eraikitze Proiektua burutzeko beharrezko diren ondasunak hartu eta eskubideak erosteko nahitaezko desjabetzapenaren espedienteari hasiera emateko proposamena erabaki gabe uztea.
- Elkarkidetzarekin Udaleko pertsonal funtzionari eta laboralarentzako bizi-aseguru kolektibo baten harpidetza egitea.
- Euskal Herriko A.E.ko Jutzizi Auzitegi Nagusiari Arrasaten Lehen Instanzia eta Instrukzio-ko Epaitegia sortzeko eskatzea eta Eskualdean Penaleko Epaitegia.
- Ehiza dela eta, zenbait talde ekologistak aurkeztutako mozioari dagokionez, ondorengo puntuak onartzea:
 - Segurtasun-guneak errespetatzeko exigitzea.
 - Mendietan "animaliak solte utzi" aurretik, inpaktu eta oreka ekologikoei buruzko azterlanak egitea.

Arrasaten, 1989ko Abenduaren 4ean

Alkatea

Gabonetan oparirik onena: disko bat



Aukerarik zabalena

Otalora kalea Tfnoa: 79 29 09
ARRASATE

Zure erosketak AKOBEN egiten badituzu KOTXE bat irabaz dezakezu



ZOKKETA
1990eko
urtarrilaren
19an

Volkswagem
Polo Coupé GT. 5cv.
autoa

THOMSON
VTS-200 Bideoa
40 aparatu

Notario aurreko ZOKKETA

Akobe



Jose Aranzabal

Elektrogailuak. TB. Bideo
Iturriotz 15, Tfnoa: 79 15 16

KOLTZA - *Jose Aranzabal*

Sukalderako altzariak. Oparigaiak
Bañez dokorea 8, Tfnoa: 79 18 92

Aralarren bizikletan

Abenduaren 2an, eguraldiaren aitzakiaz, biharamonean Aralarrera joateko zita egin genuen. Eguraldi borobila, hotza, baina pena merezi duen horietakoa.

Kotxeak hartu eta Landatik zehar Huarte Arakileraino. Hemendik aldatza haundi samarra hartu eta Santutegi ondoraino eta gero Guardetxera.

Bizikletak gertatu eta Pagomari aldeko pista hartu genuen, oso pista zabala eta ederra. Neguan fondoskya egiteko erabiltzen den pista Pagomarin eskubitara hartu eta menditontor batera heldu ginen. Hemendik egundoko ikuspegia dago: Gorbeia urrunean, Orixol, Anboto, Udalaitz eta Aizkorri eta Aratz gertuago. Ekialderat jo eta Igaratza aurrez aurre. Leku aparta edozer gauza egiteko bizikletan, oinez, zaldiz, zoragarria! Igaratza zeharkatu eta Aratz aldeko mendie-



tarantz jo genuen azken erripak "sentitu" arte.

Berrito buelta eman eta guardetxera joan ginen, artzainen txabolen ondotik. Guardetxean salda beroa, txorizo egosia, ardoa.

Hurrengo batean ere joateko zita jarri genuen: mendi-zeharbidea egiteko Guardetxetik-Larraitzera. Parada polita oinez edo bizikletan joateko.

K. U.



VXARTE -k jai zoriontsuak opa dizkizue
Udala auzoa 79 12 50 Arrasate

JAI ZORIONTSUAK!



Sport
SASIAIN

Zaraia 4, Tfnoa: 79 77 63
ARETXABALETA

PAGALDAi

Lurrundegia eta opari-gaiak

Durana 33, Tfnoa: 79 10 14
ARETXABALETA

**MARI MAR
ARTILEAK**

Puntozko jantziak
eskuz eta makinaz
egiten dira

Kalealdea 13, B.Tfnoa: 79 65 93
ARRASATE

ETXEBIZITZAK

- Arrasateko erdialdean alokairuan behar dut lehenengo pisu bat edo beste bat igogailuaz. Tfnoa: 78 07 46.
- Haurrik gabeko bikote gazteak Arrasaten pisu alokatua behar du. Tfnoa: 79 30 20.
- Uribe auzoan pisua salgai ganbara eta garajeaz. Tfnoa: 79 49 66
- Muntatuta dagoen pixu batean gela hartuko nuke. Jose Manuel Tfnoa: 49 14 53 . Dei egin 8etatik 10etara.
- Errentan hartzeko etxabehea edo merkatal lokal bila gauzak sartzeko. Tfnoa: 79 94 00
- Jantzitako pisuan logela bila. Tfnoa: 49.14.53 (Jose Manuel), gaueko 8etatik 10etara.
- Apartamentua salgai. 2 logela, bainugela, ganbara, sukalde-jangela. Tfnoa: 79 26 95 (6etatik 8etara)
- Pisua salgai Urriburu kalean. Tfnoa: 79 81 79
- Pisua salgai Udalpe kalean. Tfnoa: 983-39 41 90
- Pisua salgai J.L. Iñarra kalean. Tfnoa: 79 20 03
- Pisu berri-berria Erguin kalean salgai. Gas naturala eta ur beroa, egongela, bi bainugela, sukalde ekipatua. Tfnoa: 79 19 96
- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubietan)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Astegunetan arratsaldez.
- Zigarrolan pisua erosiko nuke. Interesatuak deitu 79 62 89 tfnora.
- Neska behar da Bilbon pisua konpartitzeko. Tfnoa: 79 98 30

LANA

- Neska arduratsua etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 45 92. Arratsaldeko 3etatik 4'30ak bitartean edo 8etatik aurrera deitu.
- Ingelesezko klaseak emateko pertsona behar da, astean 3 edo 4 ordu, goizetan (goizean goiz hobeto) interesatuak deitu 78 07 85 10etatik ordu letara, astegunetan.
- Neska haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Deitu azkar 79 42 69 Tfnoa.
- Ingelesezko irakaslea behar da "Bilboko 3." kurtsoa neska bati emateko. Tfnoa: 79 57 53 (21etatik aurrera)
- Bi haur zaintzeko eta etxeko lanak egiteko pertsona behar da. Lan orduak:8-18. Tfnoa: 79 79 69 (8etatik aurrera)
- Esperientziadun kamareroa behar baduzu. Tfnoa: 79 75 92
- Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume edo neska behar da. Tfnoa: 79 35 44 (7etatik aurrera)
- Euskara irakaslea behar da O.H.O.ko 6. mailako haurrari euskara klaseak emateko. Interesatuak deitu 79 37 87 tfnora. 7etatik aurrera.
- Asteburu gauetan haurrak zainduko nituzke. Ikaslea. Tfnoa: 79 99 82. 9etatik aurrera. Miren.
- Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko neska behar da. 79 71 34. Ane.
- Emakume euskalduna prest etxeko lanak egiteko edota umeak zaintzeko. Dei egin 79 07 73 Tfnoa.

SALEROSKETAK

- Salgai dituzun pioletak eta granpolak erosiko nizkizuke. Jabier 79 50 53
- Fagor markako ikuztallua salgai. Ondo dago eta merke salduko nuke. Deitu 7,30etatik aurrera 79 82 47 tfnora.
- R-11 GTL berde metallizatua, SS-T salgai. Tfnoa: 79 94 86
- Solnua -96 baxua. Moreschi markakoa. Tfnoa: 79 52 40
- Prenier bateria salgai, plater eta guzti. Tfnoa: 79 46 86
- Venguri kitarra elektronikoa salgai, 3 Fender pastilaz, Strato Caster eta dagozkion kableak, Anplifikadore bi Doobie sarreraz, Pedal distortsioa MxR, egoera onean dagoen maleta, Jibson korda-joku bat.
- Umeentzako kotxe itsasurdina, Arrue markakoa, prezioa: 15.000 pta. Tfnoa: 79 7742 (10etatik 12etara)
- "Amstrad" jokuak salgai. Denak erdi prezioan eta egoera onean (disketetan eta kasetetan). Deitu 7etatik aurrera 79 49 03 tfnora. Gorka.
- Zure argazki-makinarentzako Panagor markako 200 mm-ko telea salgai. Diametroa 62. Oso merkea. Tfnoa: 79 71 64
- Micro Genie V-60 organo elektronikoa salgai. 8 ahots polifoniko, erritmo kontrola, efektuak mota melodikoak eta musika laguntzaz etab.. Interesatuak dei 79 33 35 tfnora. 8etatik aurrera



ARRASATEN HILDAKOAK

- Pablo Gisasola Alkorta, 92 urte, azaroaren 30ean
- Lucia Quintana Martin, 66 urte, abenduaren 3an
- Rafael Perez Lucas, 23 urte, 4ean
- Julia Balanzategi Beloki, 65 urte, 4ean
- Oscar Pereira Galdos, 14 urte, 6an
- Jose Cerezal Orcada, 81 urte, 7an
- Sergio Valderas Gonzalez, 76 urte, 11an
- Carolina Arbizu Oiarzabal, 79 urte, 11an
- Justina Azkarreta Etxebarria, 75 urte, 11an
- Julian Larrañaga Uribetxeberria, 86 urte, 11an
- Felisa Manso Redondo, 80 urte, 12an

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DIAN. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Arrasate Pasealekua 3 bis, etxaben.
20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

“Arrasate 89”

Lehiaketa ezberdinen eta *lokin Zaitegi* itzulpen laburren III. sariketaren

SARI BANAKETA

Abenduak 21, osteguna
Monterroneko hitzaldi aretoan 7etan

Hurbildu zaitetz zu ere ostegunean
Monterronera, atsegina izango da eta.

Antolatzailea : AED Elkarte
Arrasateko Udalaren eta Aurrezki Kutxa Munizipalaren laguntzaz



Miren Arrieta

Lurrindegia

OPARIAK
OSAGARRIAK

“Zure opariak Gabon hauetarako”

Zerkaosteta 12, ARRASATE Tfnoa: 79 00 35

Eslu
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
Arrasate

Zunbeltz

Simon Arrieta Enparantza 2,
BERGARA

Lore lurrindegia

Olarte kalea 10, Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

ALTUNA

Lurrindegia
bisutegia
drogeria

Maalako Errebala
Tfnoa: 79 14 23



Bedoña, 1935.

Juan Arana Ezpeleta, beranduago Loramendi gaitzizen literarioaz ezagunagoa

Bedoñako Mendibitsu baserrian jaio zen 1907ko martxoaren 23an. Hamahiru urte zituela Altsasura joan zen Kaputxinoen komentura. Hondarribian eta Lizarran ere egon zen ikasten. Komentuan Joaquin de Bedoña deitzen zioten, berak izen hori aukeratu zuen eta.

Berehala nabaritu zen euskal letretan. Zeruko Argian idatzi zuen. Poemarik ezagunenak *Enara beltza*, *Barruntza leihoan* eta *Arrantzalienen arrats otoitza*. Hogeitasei urte bete zituen egunean, peritonitisak jota hil zen Donostian, 1933ko martxoaren 23an, hain zuzen ere. Handik bi urtetara, 1935eko ekainaren bian omenaldia antolatu zen Bedoñan, artean Aretxabaletako auzoa. Argazki hau

egun hartan atera zen. Gonbidatuen artean, ezkerretik hasita laugarrena, zutik, Esteban Urkiaga, *Lauaxeta* poeta famatua. Eskuinean, belauniko, Juanito "Ixurtz", Jokin Zaitegiren aita.

KOPIOTXOA

Fotokopiak

Planu-Erreproduzioak Enkuadernazioak

IREKI BERRIA

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82 ARRASATE

LILURA -ek
zeure moda
diseinatu
eta sortzen laguntzen
dizu

Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE

Famauen ahotik

Kazintto Bergara: "Erreminttie eta materixala ezauketie dok inportantiena"



Hamazortzi urtekin skoutetan

Maestria eitten nebillela lehengo boy-skoutetan sartu nitzuan. Orduen nausixenakin Arregixenak, Jabier Trojaola eta horreik jabitzan. Eta ni mutikuekin hasi nitzuan, eskulanak eifñ, mendire urteixerak eta halan.

Skoutekuek pãñoletie ebalten juen eta bi muturrek lotzeko halako hazurrezko aro batzuk jittuen gehixenak eta nik leixar makillie hartu eta eroizein figura eitten naixuan, punta banatan zulue eifñ eta han ebillen naixuan paparrien dindiliske.

Forjesen txistiek eta zenizeruek

Jentiendako eitten eta, oifñ dala hamazortzi urte ero hasi nitzuan, baten eguna zala eta bata eta bestie, erosi alabastrozko zenizeruek eta lauburuek eta halakuek eitten. Baiñe aurretik forjesen txistiei reliebiek emuten eitten naixuan. Dibujau bieran moruen eta gero ba bere sakontasune emun, arista eifñ ero...

Alabastruen eta egurrien

Alabastruen lehenengo lana Mondraueko portaloie izen zuan. Batek fabrian ia portaloie eifño nutzen eta nik ba Hueskako Ainsan, hango itturrixen ikusitte naukan ala-

bastruen eifñdeko plaka bat eta handik sortu jatan ideie. Alabastruen portaloie, Bergako San Antonioko zubixe eta esku bat jaukat eifñde.

Eta egurrien Sto Tomasak barrero inderra hartzen hasi zienien hasi nitzuan, orduen oso talladore onak etorri zittuan. Hareik kutxa zaharrak eta talletan ikusi eta, neuk pe ekin biher juat ba, pentsau eta arrazkerø eifñ eta eifñ. Kajoi tabernan dauzen Mondraueko bost arkuek, bastoiek, basrritar bat, gerran jauregixe, berdura plaza, Gatzako arku bat...eta oifñ harmarri bat eitten nabik.

Oiñartekuekin gustora

Lan bakoetak bere zera jaukek bai eta ez dok samurre gustokuena zein dan esatie, baiñe oiñartekuekin behintzet gustora nak.

Hala be izeten dittuk gora-beherak, oifñ dala lau urte baserritar bat eifñ naixuan, txapelakin eta itxurez edarto, baiñe gero aurpegire begiretu eta neure artien, "Jun euskaldun indixio hau, etxakixat..."

Norberen konture ikesi

Ikesten ez nok iñokin ibili, erreminttie eta materixala ezautu biher. Egurrien betak zein aldetara doiezen, harrixen golpie nun emu-biher dan eta halakuek. Ordu asko eifñde ikesi juat. Atsaldien zurrutien ibili biherrien, hauxe eitten emuten juat denporie, gibela zainketako almatiba moruen.

Estepan Plazaola eta J. M. Garai

Zelebrequerixak

Ba ei zien auzo baten bi gizon kedarrria baiño sikuaauak. Harek ez emutearren gorantziaik pe ez i eben emungo.

Bixetako batek ortuko alanbra-durixia konpontzen ei ziharduan semiakin batera eta zera esan ei zotsan honi:

— Joan hari Patxinera eta eska-tuixok mailuka bat, iltza batzuk sartzeko biha dotela eta.

Laster bueltau zan mutikuoi Patxik mailukia ukatu ein zotsala esanez, iltzak sartzan mailatu egin zeikela eta.

Orduan esan zotsan semiai:

— Konturatzan haiz zelako sikua dan Patxi-ximur hori? Horrek eleukek bekarraik pe emungo. Holakuk zenbat eta urrinago hobe. Baiña tira, horri kaso egin barik joan hari etxera eta ekarrrik kutxan gordeta daukagun mailukia.



Urtain bere sasoirik onenian zeuan eta jentia etzeukan beste konbestaziñoik. Tabernan alkartzan die bi plaentziar eta...

— Nor jok pa gaur kontrarixua?

— Aleman bat.

— Alemana bai, baiña orizontalekua ala bestekua?

— Etxakixat zein alemania klasetakua dan, baiña orizontal gaur gabian geldittukok.

Eta halaxe izan zan. Urtainek bere kontrarixio alemana "orizantal" laga eban.

Juan Martin Elexpuru

Erreabilitazio eta fisioterapia zentroa

A. BASTERRETxea


(L. Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, ASISA eta partikularrak)

Olarte kalea 43 bis, Tfnoa: 79 13 49 ARRASATE

Ekologia II

Gizonak, gizakiak, "Homo Sapiens"ak ez du kontutan izaten *Kate Trofikoaren* bitartez Naturari egindako eraso guztiak gaur edo bihar guregana itzultzen direla.

Baina ikus dezagun Kate Trofiko hori zer den:



Airera, lurrera, ibaietara botatzen ditugun gauza guztiak landareen kutsagarri dira eta hauek gure elikagai edo bestela, animaliek landareak jan ondoren, baina edonola ere gure janari izango dira, ibaiak medio direla itsasora hainbat produktu heltzen da, produktu hauek ura kutsatzen dute eta era berean "fitoplaktona", hau arrainen janaria dugularik; beraz, arrainak ere kutsaturik suertatzen dira horrela,

eta arrantzatu ondoren gure mahaian izan ditugu. Eta airera botatzen dugun guztiaz, zer esan genezake? Gure bizia posible izateko derrigorrezkoa dugu airea, hilko ginatke airerik gabe, denbora guztian gure biriketatik igarotzen da: amasketa bakoitzean aire horren 600 zentimetro kubiko mugitzen dugu, minutu bakoitzean 8.400 eta egun guztian zehar 12.096 zentimetro kubiko, hau da 12 metro kubiko.

D.D.T., toxikoak diren beste produktu batzuk eta minbiziaren sortzaile batzuk, hartza polarraren gantzetan aurkitu dira. Metale astunak, toxikoak hauek ere, arrinetan egoten dira, eta zer esan landareetan aurkitzen diren pestizida, plagizida eta herbizidez? Ezin ahaztu landare hauek edo berauen fruituak jan ondoren gure soinean izango ditugula.

Olagarroak akabatuta maiz aurkitu izan dira Deba ibaiaren uhobian; amurruinak, izokinak eta beste mota askotako arrainak edozein egunetan Bidasoa ibaian agertzen dira, edo Ibaizabalena...

Gure ibaietan biziaren aztarna pixkanaka desagertzen ari da eta gure itsasertzetan beste hainbat gerta daiteke.

Eukeni eta Arantxa

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA


URKIOLA
argazkidenda
Tfnoa: 79 39 20
ARETXABAleta

Aloña Piel
San Lorenzo 40,
Tfnoa: 78 18 60
OÑATI

EGIDO Ordezko Piezak
Automobilerako ordezko piezak
Legarre Pabilola. Tfnoa: 79 62 11

BATZOKIA
jatetxea
Eguneroko menua
eta karta
Iturriotz 41, 79 70 41
Arrasate

HERRI Irratia



Radio POPULAR
G I P U Z K O A

DONOSTIA

Garibai, 19 O.M. 1.224
Tel. 42 36 44 F.M. 88'5
Fax. 42 78 21

LOIOLA

Azpeitia F.M. 99'8
Tel. 81 44 58
Fax. 81 39 44

Ordua ("Time")


Diru erreza Harlowentzat apostu
eta ilargia kalean duk
Itzalpeko mutikoak
legeak apurtzen ari
eta hi St. Louis Easteko sortaldean hago
Haizea diskurtsoak asmatzen ari
eta euriak txalo andanaren soinua dik.

Napoleon negarrez ari duk
Ihauteri Tabernan
Bere andragai ikustezina ispiluan zegok
eta bandoak etxera joan dituk
Mailu-euria ari duk, iltze-euria
Egia duk, bai, ez zeukak zer eginik hemen.

Eta ordua duk, ordua
hi maitatzen hasteko,
ordua duk.

Eta umerzurtzarena egiten ari dituk
Euren memoriak trena ematen dik:
zenbat eta urrunago, are txikiago
eta ezin gogora ditzakean gauzek
ezin ahaz ditzakeanak deitzen ditek
Istorio hauek saindu bana jartzen ametsei.

Beno, geratuko zela esan zian
zapiak begietatik erori artean
baina amazulo horiek
ez zekitek noiz behar den alde egin
ametsak ala errezoak ote diren
Beraz, itxi begiak,
eta ez duk minik izango.



Eta ordua duk, ordua
hi maitatzen hasteko,
ordua duk.

Bada, gauzak nahiko latz
egutegi-neska batendako
Mutikoek kotxetik jauzi egin
eta kalea zipristindu ditek
eta neska asaltatzear daudenean
botatik labaina atera,
eta hamaika uso erori dituk oinetara
Beraz, jartzak kandela leihoan
eta musu bat ezpainenan
leihoko platertxoia euriz bete arte
bihotza lutoz duen neska ezezaguna bailitzen
eta bota ezak bibolin jolea neu itzuli artean.

Tom Waits
"Rain dogs" (Euri-zakurrak)
Itzulp. G.M.

ENARA
OS-GARRIAK

Maalako Errabala 21,
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32



"EDERTU" ileapaindegia



San Andres auzoan

79 04 28 Tfnoa.

■ **Gabonetako publizitatea:** Gainean ditugu Gabonak eta sasoi honetan bereziki saltzen zaigun publizitatea ere hasi da belarriak erakusten medio gehienetan. Opari eta ospakizunekin oso lotuta doazelako edo, jostailuak, txanpainak, lurrinak eta turroiak batez ere, garai honetako publizitatearen errege bihurtzen zaizkigu.

Denen gainetik jostailugileak omen daude. Espainian behintzat bost etxek 4.000 milioi pezeta gastatzen dute publizitatean beren produktuak ahalik azkarren saltzeko. Bi faktore berri gaudituz behar dituzte: jaitsiera demografikoa, hau da, geroz eta ume gutxiago dagoela, eta umeek telebista aurrean ematen duten denbora, gorantz etenik barik. Hauetako baten bat, Feber uste dut, konturatu da Euskal Herrian asko direla euskaraz berba egiten duten umeak eta ETB1en jo eta ke ari da euskaraz iragartzen.

Txanpain etxeek mila milioi inguru inbertitzen dute publizitatean. Bata oso ezagunak diren izarrak-aurren Paul Newman-kontratatzat datorkigu eta bestea Donostiako kontxa ahazten ez duelarik, nazioarteko irudi bukolikoak eskainiz. Azken honek, Codomiuk, urtetxoak daramatza euskaraz ere iragartzen.

Lurrin etxeek ere xoxa dexente xahutu dute publizitatean, baina hauen artean apenas inork ez duen xentimorik ere gastatzen euskaraz. Hauentzat euskaldunok ez dugu anorak iluna eta bakero hitatuena garaia gaudituz, nonbait.

Turroigileek, amaitzeko, 100 eta 200 milioi pezeta inguru gastatzen dituzte Gabonetako -haientzat sasoi bakarra dela esan behar-publizitatean. Hauetako batzuk ere gogoratzen dira euskaraz. Kuriositatez, ETB1ek aurren erakutsiko duen azken iragarkia Gipuzkoako Kutxarena izango da. Inor ez du esan zenbat kostatuko den.

■ **Hitzetik hortzera:** Bertsozalea ez naizen honek oso gustora ikusi ditut aurtengo Bertsolari Txapelketako erdifinalak telebistaz. Akaso han egon zirenek ez naizela enteratu esango didate, baina niretzat inportantea bestea da, ikusi gura nuena ikusi nuela, modu argi, azkar eta atseginez. Bere kasa dabilen kamararen irudiek ikaragarri aberasten dute saioa, handik eta hemendik jasotako eritziek bezala. Txalorik beroenak Joxerra Gartzia eta bere taldearentzat.

Joxe Aranzabal




gusto baduzu

■ **Basatia:** Ostiralean, 9etan. J. P. Rappeneauk zuzendutako filma, Catherine Deneuve, Yves Montand eta Luigi Vannucchi antzesleekin. Hegoameriketako hiri haundi batean Nelly Vittorio-ekin ezkontzera doa; baina eztaiegunean Nellyk alde egiten du, Martinen gelan babesten delarik. Martin hurbileko irla batean bakarrik bizi den filantropo frantsesa da.

■ **Willie ere gogoan hartu:** Larunbatean, 15,20etan. Robert Redford, Katharine Ross eta Robert Blake, Abraham Polonskyren zuzendaritzapean. Willye Boy gazte indiarra Califomiarra itzultzen da bere emaztegaia den Lola berreskuratzeko asmoz. Horretarako gizon bat hil, eta Lolarekin ihes egitera behartua ikusten da. Christopher Cooper da bikotea jarraitu eta harapatzeaz arduratuko dena.

■ **Bertsolari txapelketaren Finala:** Igandean jokatu da Donostian, Goizeko 11,30etan eta arratsaldeko 5etan. Bertan izango ditugu ETBko kamarak, han gertatzen dena zuzenean bizitzeko. Aurtengo finalean Lizaso, Lopategi, Egaña, Euskitze, Enbeita, Murua, Lazkano eta Mendizabal.

bideoak



Robot industrialak

Hona hemen Elhuyarrek Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen laguntzaz egindako bideoa. Andoni Sagamak modu erraz eta entretenigarrian robotikaren historia eta aplikazioak erakusten dizkigu hogeita minututan zehar. Hainbat irudi Ikerlanen ateratakoak dira.

Beta nahiz VHSn. 6.360 pta.

OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

Euskal herria ezagutzuz

Bila itzazu hizki zopa honetan Euskadin samur aurki ditzakegun sei zuhaitzen izenak. Goitik behera, behetik gora, eskumatik ezkerrera, ezkerretik eskubira zein diagonalean egon daitezke.

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| O | D | E | P | U | I | M | B | E | G |
| H | A | G | I | N | E | T | A | R | A |
| L | O | A | N | U | M | H | E | M | Z |
| H | A | G | U | E | J | U | F | O | T |
| J | I | K | O | R | A | I | K | H | I |
| U | F | M | A | I | R | P | D | E | R |
| K | U | E | L | M | D | I | L | B | A |
| L | O | G | A | P | O | J | T | E | H |
| P | E | I | B | O | G | E | R | Z | E |
| M | Z | K | T | H | S | F | U | I | N |

Soluzioa, 21. or.

Mokordo

Horoskopoa



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Justu momenturik onenean esnatu zara ametsetik. Hau kolpea!! Beste aukerarik ez duzunez, onartzen behartuta zaude. Bestela ezingo zara zulotik irten.



LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Inoiz baino gutxiago espero zenuena ailegatu da. Azkenean bete da zure ametsa. Aurrikusita zenuen legez joka ezazu eta arrakasta ziurtatua duzu.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Ekonomi asuntuak gaizki daramatzazu. Behar beharrezko gauzetan bakarrik gastatu beharko zenuke, oso egoera larrian sartuko zarela. Ahal duzun guztia aurreratu beharko duzu.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Martxa horretan jarraituz gero, egun gutxitan gastatuko duzu indar guztia. Apur bat lasaitu eta inguruan duzunaz gozatu. Ez da gutxi eta.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Hasiera batean dibertitzen zintuenak orain aspertu egin zaitu. Pentsa ezazu horrekin jarraitzeak merezi dizun ala ez eta aurrerantzean horren arabera jokatu.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Nahi zenuena egitera ausartu zara eta dena ondo irten zaizu. Azkenik ulertu duzu bititza jokua bezalakoa dela eta apostuek saltza ematen dietela. Zorionak.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Arrikgarri, misterioitsu eta debekatuta den guztiak erakarriko zaitu. Adi ibiltzekotan primeran pasa dezakezu, baina despisteren bat edukiz gero, gorriak ikusiko dituzu. Kontuz ibili.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Hartu duzun erabaki horrek ez dizu ezertarako balio izango, inorekin kontatu gabe hartu duzulako. Hurrengorako ikasiko duzu besteek zuregan duten eragina.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Hurrengo egunetan jasoko dituzun aholkuak baliagarritasun haundikoak izango dira. Ez egin harroarena eta behintzat komeni zaizkizunak hartu eta zeure buruari aplikatu.




CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Ez zara ondo jokatzeko ari. Azpijekuak ez dira zure berezitasuna, beraz, aldatu portaera hori, bestela zu izango zara kalte haundiena jasoko duena.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Oso bakarrik eta minbera zabilza egun hauean. Etxean sartuta geratzearekin ez duzu ezer konponduko. Saia zaitetz jende berria ezagutzen, harreman berriak behar bait dituzu.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Zure burua kontrolatzen ikasi behar duzu, zure umore-aldaketak ez dituzte besteek jasan behar. Mendira joatea edo kirolen bat praktikatzeak asko lagunduko zintuzke.



Aramaio erreka Uribarri auzoan

Roberto Mend



FAGOR 

iKER

**SUKALDE
LILURAGARRIAK**

ARRASATE

Bainugela-erakusketa: Zarugalde kalea 52, Tfnoa: 79 99 42
Sukalde-erakusketa: Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 43